



ARGIA



LABORANTZA LURREN
DESAGERPENA

Espekulazioa oztopatzeko ezinak Ipar Euskal Herrian

24-31. orrialdeak



**Disuasio-printzipioak
eta zoriak
bermaturiko oreka**

11 | ARMA NUKLEARRAK



**"72 kide hil dizkigute
Perun eta etxera joango
garela uste dute?"**

32 | LOURDES HUANCA



**Bilbo underground:
espazio berriak
loratzen**

44 | KULTURA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #283
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



ARGIA.EUS/LARRUN

EUSKARA:
AURRERA ALA
ATZERA GOAZ?

IÑAKI IURREBASO SOZIOLOGOAREKIN ELKARRIZKETA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | ANUNTXI ARANA
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
FRANCISCO CARMONA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



ZALDI ERO

14 | GREGORIO MURO

“Euskarazko komikiaren aitajauna” omen dena elkarrizketatu du Miel Anjel Elustondok. Azaldu du nola hasi zen *Ipurbeltz*-en *Iker eta Ixone* argitaratzen, ondoren nola pasatu zen komikigile askoren gidolari izatera, nola egin zituen harremanak nazioartean, erretiro garaian nola sortu zuen Harriet argitaletxea... Eusko Jaurlaritzaren beka sortzeko zergatik aritu zen lanean ere azaldu du, diru kontuak ahobizarrak gabe azalduz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

11 | NET HURBIL

Munduan 13.000 arma nuklear ditugu, eta aktibatu ez izana zoriari ere lotu beharra daukagu

Jenofa Berhokoirigoin

24 | LABORANTZA LURREN DESAGERPENA

Espekulatzailen parean Safer-ak dituen mugak begi-bistakoak dira

Jenofa Berhokoirigoin

32 | NAZIOARTEA | LOURDES HUANCA

“Herri indigenentzat Boluarte ez da presidentea, usurpatzailea da”

Jon Hidalgo

36 | OSASUNA | ESTITXU FERNANDEZ

“Erditzean indarkeria, bertsiorik arinenean ere, traumatikoa izan daiteke”

Mikel Garcia

44 | KULTURA

Zerbait pizten ari da Bilbon

Iñigo Basaguren

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Leire Rodriguez, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Begiz begi

Bizitza hobe baten bila, milaka kilometro egin eta itsasotik datozen pertsoneri ke potoak eta gomazko pilotak jaurtitzen ematen zaie ongietorria Espainiako Estatuan. Zure taldearen partiduaren ostean, tabernan lagunartean zaudela, funtzionario batek tiroka zu hiltzea erabakitzen badu, Euskal Herrian lanpostu berean jarraituko du, normaltasunez. Horregatik, hamar urteko borrokaren ostean, greba batean begia kendu zioten Aingeru Zudairek lortutakoa mugarri da kolore guztietako poliziek mutilatu dituzten euskal herritarren zerrenda luze eta osagabearentzat, eta batez ere indarrean den polizia eredu militar, opaku eta korporatibista eraldatzen hasteko. Gomaz, foamez, berunez, elektrodoen bitartez... estatuaren indarkeriaren osagaia gutxienekoa da Poliziak eta inpunitateak txanpon beraren bi aldeak izaten jarraitzen badute.

📍 IÑIGO URIZ / FOKU ✂️ AXIER LOPEZ





Erretreten erreforma onartu du Frantziako Senatuak

LEIRE ARTOLA ARIN

Mobilizazio eta greba egun jendetsuak piztu dira azken egunetan erretreten erreformaren aurka. Baionan 7.300 lagun bildu ziren martxoaren 11n, baina gau horretan bertan onartu zuten testua Senatuan, aldeko 195 eta kontrako 112 botorekin. Asanblea Nazionalan eztabaida espero da.

Martxoaren 15ean behin betiko testua adostu du senatarien eta diputatuen batzorde misto batek, eta hurrengo egunetik abiatuko dira Senatuak eta Asanblea Nazionaleko bozketak; eztabaida handia espero da, martxoaren 26ra arte luzatu litekeena. Gogorazi behar da gobernuak konstituzioko 49.3 artikulua erabiltzeko aukera duela, alegia, bozketarik gabe erreformari argi berdea emateko aukera, baina jakinarazi dutenez ez da euren asmoa horra iristea; gehiengo eskuratu nahi dute. Halere, pare bat botoko tarte estuagatik erabaki liteke erreforma onartzen den ala ez.

Martxoaren 15ean bertan enegarren greba eta protesta egunera deitu dute sindikatuek, eta orain arte bezala mobilizazio jendetsuak espero dira. Martxoaren 7an greba orokorra egin zuten, eta sektore batzuetan –birfindegiak, elek-

Asanblea Nazionaleko bozketetan eztabaida handia espero da, martxoaren 26ra arte luzatu litekeena. Gobernuak gehiengo eskuratu nahi du bozketetan

trizitate eta gas sektoreak, zabor biltzailak, zamaketariak eta beira eta zeramikagileak– greba mugagabera deitu zuen CGT sindikatuen elkarteak, “erretreten erreforma baztertu arte”. Sindikatuaren esanetan, larunbatean milioi bat lagun batu ziren protestara; Poliziaren esanetan, 368.000 izan ziren.

Martxoaren 7ko greba orokorraren bezperan, Frantziako Gobernuak iragarri zuen akordioa lortu zuela merkataritzako banaketa enpresa handiekin, eta “inflazioaren aurkako hiruhilekoa” abiatuko zutela. Supermerkatuek produktu sorta bat aukeratuko dute, eta oinarriko produktu horien irabazi tarte txiki-

tuko dute, “ahalik eta merkeen” saltzeko herritarrei. Bruno Le Maire Ekonomia ministroak jakinarazi duenez, ekainean berriro negoziatuko dute akordioa. Jakinarazpena kaleetan ematen ari diren mobilizazio handiekin lotu dute ahots kritikoeak, esanez ez dela kasualitatea greba egunaren bezperan iragarri izana eta gobernuak irudia garbitzeko taktika gisa darabilela.

ERREFORMAREN GAKOAK

Emmanuel Macron presidentearen agintaldiko erreformarik garrantzitsuenetakoa da pentsioena. Herritarren haserrea piztu duten aldaketak hauek dira, besteak beste: erretiro adina 62 urtetik 64ra luzatuko dute progresiboki 2030era bitartean, eta kotizazioa 42 urtera igo; egun erretirorako erregimen berezia duten 42 sektoreetako –postariak, metro gidariak eta senatariak, esaterako– ia denak erregimen orokorrera igaroko dira, eta gainerako lanbideetako erretiro baldintzak izango dituzte.

Sindikatuaren esanetan, “gehien galduko dutenak” emakumeak izango dira, hala nola zaintzara bideratzen dutelako euren lan bizitzaren zati bat; gobernuak adierazi du dirulaguntzen bidez orekatu nahi dutela despaketotasun hori. Gainera, Macronek baieztatu du gutxieneko pentsioak 1.200 eurokoak izango direla, baina praktikan zaila dago hala izatea, zergak handiagoak izango baitira. Halaber, kopuru hori aurreikusten da bizi osoan gutxieneko soldata jaso duten langileentzat soilik.

LAB sindikatuek ere gogor jo du erreformaren aurka: “Interes kapitalistei bakarrik erantzuten dien gobernu liberal baten hautu politikoa da”. Ohartarazi dute legea abiatzeko gobernuak emandako arrazoiak “engainagarriak” direla. Besteak beste, neurri hauek eskatu dituzte: 37,5 urteko kotizazioa 60 urteko erretirerako, Patronalaren opari fiskalak amaitzea, soldatak emendatzea, eta bertako negoziazio eremuak ezartzea. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Zuei esker



UXUE APAOLAZA LARREA

Dagoeneko gaztea ez zarenaren beste seinale bat da astero ikusten zenuen jende hori desagertu egiten dela bat-batean. Egun batetik bestera, halaxe uzten diozulako parrandak astero egiteari, eta hasten zarelako ortzadarraren maiztasunez egiten. Batzuetan, eskela batean ikusten dituzu hurrena. Baina ostiralean atera egin nintzen, eta zu ere bai. Sagardotegian topo egin genuen lehenengo, taberna batean, gero. Nigana hurbildu zinen, eta zutabe hau irakurtzen zenuela esan. Eta transgresoreago hitza erabili zenuen, eta egiten gaituzu. Eta ni ito egin nintzen, noski.


Ez dakit ze adin duzun, badakit ni baino urte batzuk listagoa zarela, zaretela taldean zenbiltzatenak. Izan ere, nire lehen gaztaroko paisaiaren parte zarete. Emakume horiek zarete, tabernan topo eginda zirrara eragiten zutenak (orain, sagardotegian ikusi eta lasaitua sentiarazten didazuenak). Altu hitz egiten zutenak, erre egiten zutenak, edan, mozkortu, eta ez dakit zerbait gehiago. Poliziaren aurrean ikusi zaituztet, tartean inor gabe, Hernaniko kale erdian oihuka, hitz itsusiak esaten. Militatzen ikusi zaituztet. Eta inoiz ez dut jakin inguruan gizonik bazen, edo ez zen. Ez, ez zeuden. Dantza egiten zenuten, gogotik. Eta ez zenekiten, baina guretzat ari zineten.

Keinuak imitatu genituen, janzkera askatu, sujetadoreak kendu, dantza egin, gogotik, eredu oso *guaya* zelako. Eta ez zen merkea, ziur, gure paisaia izatea. Emakume horiek zarete, zuen gorputzen bidez bide bat ireki zenigutenak. Ostiralean nigana hurbildu zinenean, zirkulu bat itxi zen. Eskua eman genion elkarri. Elkarrekin transgresoreago izan gaitezke, aspaldi delako tabernan bakarrik ez gaudela, aspaldi delako, noizean behin, erridikulua atarian geratzen dela; gure parrandak epikoak direlako. Zuei esker. Laurogeita hamarreko hamarkadan tabernetako batailak irabazi, eta parrandak konkistatu zenituzten emakumeei esker. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Motzean

Leringo eskolan D eredu ezartzeari ezetz esan dio Nafarroako Gobernuak, eskatu duten gurasoen kopurua lege zahararen arabera.

Silicon Valley Bank AEBetako bankurik handienetakoak porrot egin du. Nazioarteko merkatuetan izango duen eragina ikusteke dago.

Gazte bat jipoitu dute udaltzainek Gasteizen, patinete elektrikoan ihes egiten saiatzeagatik. Gaztea entregatu zenean, lurrera bota zuten, belarri eta ukabilekin jo eta sudurra hautsi zioten.

Soldata mantenduz lau eguneko lan astea aztertzea jarri du mahai ganean Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu sailburu Idoia Mendiak. Hautsak harrotu eta eztabaida piztu du proposamenak.

Kitchen auziak agerian utzi du Espainiako Barne ministerioak Nafarroako Barne Kontseilari ohi Maria José Beaumont espiatu zuela, baita ere EHuko segurtasun buruak Espainiako Poliziari pasa ziola EHuko langile bati buruzko informazioa.

Urtebetez, Donostiako udal gobernua ez du lizentzia berririk emango hotelak eta etxebizitza turistikoak irekitzeko.

Betaurrekoak



ULA IRURETAGOIENA

Betaurreko moreak jarrita, desberdin egiten da arkitektura eta irakaskuntza lana. Seguraski, lanaren emaitza fisikoan ez da nabarmena izango, hau da, egurraren kokapenaren moduak edo parera zehar-argiak zer uzten duen agerian, ez du argi kontatzen betaurrekoen eragina. Esan nahi da, betaurreko moreez egindako arkitekturak ez duela zertan estilo zehatz batean adierazkortasunik izan, ez duela zigilu formal eta material bat izango. Baina laneko zereginetan zeri eman zaion garrantzia, zertan kokatu den atentzioa, lanaren garapenean zeharka eragiten dizkioten beste hainbeste faktoreekin kontatu delako, oso kutsatuta egongo da betaurreko moreen magiarekin. Eta horrek guztiak eragin sensoriala izan dezake espazioan.

Betaurreko moreak jarrita, beste errealtate mapa bat agerian gelditzen da, *Matrix* filmean antzera, begien parean eta errealtateari gainjarrita. Egiten eta pentsatzen dugunaren gain eragiten ari den pentsamendu-egitura ikusarazten da, eta azpian eta alboetan gelditzen dena ere bai, hala nola egoera horien ondorio mingarriak eta ondoeza. Kaleko eserlekua edo etxeko leihoak nola-koak izango diren erabakitzean, jabetza moreak kontuan hartutako egoerak eta aspektuak biderkatzen ditu. Eta akatsduna izateko aukera handiagotu egin da.

Betaurreko moreekin, irakaskuntza pedagogia desberdin bat egiteko beharraz ohartu naiz. Irakaslearen boterelekua adi begiratzeko alerta piztu didate, boterea eta hierarkia rola nola kudeatzen dudana hausnartzera eramanez. Irakaspedagogiak pentsamendu konkretu bat errepikatzen du, jakintza batzuk nagusitzen dira (eta beste batzuk gutxitu) eta horrek arkitektura eredu bat zedarritzen du (eta beste batzuk alboan uzten ditu). Ez dut erantzunik erronka honen aurrean, baina aurten omenduak izan diren EHUko emakume-irakasleak lagungarri dira, dudarik gabe: Mari Luz Esteban, Mirari Antxustegi, Paz de Corral, Maggy Barrere, Enkarni Gomez, Lourdes Arrien eta Vicky Areca. Eskerrak zuei. ●



Eskolan haurrei ateratzen zaizkien argazkiez

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Urte eta Erdiko umea ikaskideengandik baztertu dute eta besteek plastilinarekin nola jolasten duten begira utzi dute, irakasleek eszena bideoan grabatu nahi dutelako eta ume horren gurasoek ez dutelako baimenik eman umeari argazkiak atera edo bideoan grabatzeko. Zein momentutan jarri dugu irudia eskolako dinamikaren aurretik?

Bat. Aipatu berri dugun pasarte irakasle batek kontatu du sare sozialetan, eta erantzunei erreparatuz gero, ez da kasu isolatua; ama batek, adibidez, azaldu du semea Errege Magoen paje izan gabe geratu zela argazkietan ateratzeko baimenik ez zuelako, eta gurasoekin haserretu zela mutikoa. Kontua da gelako dinamika puskatu gabe, eta batez ere dinamika horretatik inor baztertu gabe, irudiak ateratzeko moduak badirela: aurpegi emotikonoa jarrita, pixelatuta, ume hori bizkarrez hartuta, haurra ageri ez den zatian zentratuta... Guraso askok gustuko dugu eskolatik gure seme-alaben argazkiak jasotzea, zeinen ondo moldatzen diren eta zein gauza interesgarriak egiten dituzten ikustea, eta eskertzen dugu nahikoa lanpetuta ibili ohi diren hezitzaileek tartea hartzea irudiren bat edo beste ateratzeko, baina batak ez dezala bestea baldintzatu, argazkiaren gainetik dinamika bera eta parte hartzeko denen aukera errespetatzea baita lehentasun.

Bi. Hainbatetan, ez da bereizten ikasleei ateratako irudiak familiei bidaltzeko bakarrik diren ala edozein erabilerarako (publikoki sare sozialetan zabaltzeko, esaterako), eta badira gurasoak pozez jasotzen dituztenak beren txikien eskolako argazkiak, baina argazki horiek beste plataforman batzuetan hedatzerik nahi ez dutenak. Familiek bete beharreko inprimakiak zenbat eta aukera gehiago eman zehazteko irudien zein erabilera baimentzen dituzten eta zeintzuk ez, orduan eta buruhauste gutxiago.

Eta hiru. Gure irudiak mundu digitalean zabaltzeak dituen inpaktu eta ondorioez, gure irudiaren gaineko kontrol eta kontzientziaren garrantziaz nerabeak hezten gabiltzan garaiotan, gogoetazten al dugu guk –eskolako nahiz etxeko helduok– adin txikikoei ateratzen diegun argazkien erabileraren inguruan? Familiei bidaltzeko irudiak al dira? Ekintza, momentu eta proiektu bereziak baino ez ditugu partekatzen plataformetan ala etengabe gabiltza sare sozialetara gure ikasleen irudiak igotzen? Zein mezu ematen diegu eta eman nahi diegu, argazkiz eta bideoz saturatuta dauden (gauden) garaiotan? ●

15.000

familiak eskatu dute seme-alabako 200 euroko Eusko Jaurlaritzaren laguntza, programaren lehen hiru egunetan bakarrik. Familia horiek 7.200 euro jasoko dituzte zuzenean seme-alaba bakoitzeko, eta beste 4.800 euro gehiago hirugarren eta hurrengo ahaideen kasuan.

%70

Nafarroako gazteek soldataren %70 alokairuan uzten dute, batez beste. Emantzipazio adina 29 urtekoa da. Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak aurkeztutako datuak dira.

170 bilioi

plastiko zati dabil igeri itsasoan, eta kopurua esponentzialki ari gara handitzen. Azken 40 urtetako datuekin egindako ikerketa erraldoi baten arabera, "alferrikakoa" litzateke zikindutakoa garbitzea, plastikoen produkzioak oraingo erritmoan jarraitzen badu.

"ZAINTZAK NEGOZIO IZATEARI UZTEA NAHI DUGU; GREBA FEMINISTA OROKOR BATERA GOAZ"

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

Udazkenerako greba orokorra iragarri zuten, martxoaren 8ko ekitaldien barruan.

2023-03-08



DANI BLANCO

"Osakidetzak etengabe sustatzen du edoskitzea, baina ez du baliabiderik jartzen"

ANDERE ORMAZABAL

Ormazabalen haur jaioberriak mihi-haria zuen eta edoskitzearen lehenengo momentutik zailtasunak izan ditu. Euskal Herrian artatzen ez zutenek Salamancara (Espainia) joan behar izan du mihi-haria moztera.

ARGIA.EUS (2023-03-10)

"Zure zaharra zaintzeko kontratatu behar bagaituzu, ez gaitzazu begiratu gainetik, parez pare baizik"

SORAYA AGIRRE

Euskal Herriko Emakume Migratu Feminista Zaintzaile Soziosanitarioen Elkarteko kidea.

ARGIA.EUS (2023-03-08)

TEKNOLOGIA

Datuetara murriztuak



DIANA FRANCO

Lan produktiboa eta bizitzaren lana gauza bera direla esango nuke. Bizitza on bat izateko, ondo elikatu, gorputza zaindu, babestuta egon, harremanak mantendu... behar dituzu eta hori lan handia da. Enpresen izaera antzekoa da. Bizitzaren lana eta lan produktiboa mendekotasunez beteriko dinamikak dira. Eta bizitzaren mendekotasunak nahikoak ez balira, lan produktiboaren mendekotasunek gure indarra eta denbora xurgatzen doaz. Noraino hel zaitezke tirabira honetan? Noraino xurgatu dezakete enpresek zure indarra? Noraino utzi dezakezu alde batera bizitzaren zaintza lan produktiboaren mesederako? Enpresa askotan lehengaiak gizakion lan indarra da. Lan indar hau batzuetan akzio mekaniko bat izaten da, eta bestetan balio asko sortu dezakeen jarduera, merkatu bat sortzea adibidez. Lan indarraren espresio guztiak beharrezkoak dira enpresek bizirik irauteko.

Historikoki, iraultza industrialetik lan indarra, lan baliabidea, ordutan neurtua izan da. Egun, enpresa askorentzat helburua lanaldi bakoitzaren etekin handiena lortzea da: gure jarduera guztiak datuetara itzuli behar ditugu enpresa askotan, kontratatut egiten gaituzten denbora probetxuz erabili dela neurtu dezaten. Datuak konplexutasuna sinplifikatuko duten ustea da nagusi, datuetan aditzera emaniko jarduerak hobeto ulertu eta errepikatzeke gai izango gara.

Zoritarrez, berdin gabilta bizitzan, dena objetibizatzen (jan duguna aplikazio batean sartuz, eman ditugun pausoak aplikazio batekin jarraituz, hilerokoa aplikazio batekin kontrolatuz...): lan produktiboaren datifikazioaren logikak bizitzaren lana kutsatu du. Bizitzakiko pertzepzioa galtzen gabilta, gure bizitzen izaera datuetara murrizten gabilta heinean. ●

NAZIOARTEA



Txinako lehen ministro-orde eta sailburu berriak.

Zer ote da "kalitate handiko garapena"?

MIKEL ARAMENDI

Izendapen-zaparrada ikusgarriarekin batera, ekarpen kontzeptual bat ere utzi digu astebetetz Beijingen, sakramentu-eitez, ospatu den 2023ko *lianghui*-ak: "Kalitate handiko garapena".

Egiari zor, ez izendapenak eta ez kontzeptua ez dira biziro berriak. Gokargudun berri nagusiak igarri zitezkeen urrian egindako Alderdiaren XX. Kongresuan eratu zen zuzendaritza aztertuz, protokoloa milimetrikoa baita kasurik gehien-gehienetan. Hala ere, Kongresu ondoko berrikuntza erabatekoa denez estatu-aparatu osoan (Ezekutiboa ez ezik, Legegilea eta Judiziala eta kontrol-aparatu ere buru-berritu egiten dira bat-batean), entretenigarri ugari badute gure inguruko sinologoek datozen asteetarako. Batzuek gogotik ekin diote jada, datu gutxi eta sukar propagandistiko soberarekin. Deliberamendua, betiere, aurretik dela: kargudun berri guztiak Xiren sokakoak omen dira. Duela bost urte ere horixe bera ondorioztatu zuten ia den-denek.

"Kalitate handiko garapenaren" otoizlaburra da, haatik, protagonisten ahotik entzuten dena, hitzetik hortzera. Eta esamoldea ez bada, berritasun gutxi du horrek ere, esaterako, Politburu berrituak jada urtarrilean egin zuen *ikasketa kolektiboan* "garapen-eredu berri" haren aldean. Gogoan izan behar da aginte-gorenaren hilean behingo

ikasketa kolektibo horiek, usu, izaten direla berandu gabe estatu-aparatuak egikarrituko dituen politiken iragarpen argi eta gardenenak. Kasu honetan, etiketa doitu besterik gabe, itxura denez.

Kontzeptuaren sakoneko edukia zein den kausitzea korapilatsuagoa egiten da, ordea. Baina ez haren esanahia gordeta dagoelako, baizik fazeta askotxo barne hartzen dituelako. Oso argi dago barne-merkatua hauspotu eta ekonomiararen ardatz bihurtzea dela delibero nagusia, ahalik atal gehienetan (elika-dura, energia, lehengaiak, teknologia...) autosufizientzia lortzeari lehentasuna emanez, atzerrian AEB lantzen ari diren giroarekin baikor izatea ez dela errealista deliberatuta, ziur. Hala ere, autarkiaren bila abiatzeari uko egiten zaiola ere oso argi dago, nagusiki esportatzaile izaten jarraitzen duen ekonomia batean logika hutsekoa denez.

Ur sakonagoetan murgildu eta "kalitate handiko garapen" horren zirriborroa izan daitekeen dokumentuan murgiltzen denari, agian, berriagoak egingo zaizkio (Txinari buruzko estereotipo mendebaldarrez ase bada behintzat) beste osagai batzuk: garapen horrek jendearen ongizateari eta jasangarritasunari eskaini beharko liokeen garrantzia, lurraldeen eta bizibideen orekaren premia...

Gertuagoan entzunak ditugunak, asko. ●

MUNDUAN 13.000 ARMA NUKLEAR DITUGU, ETA AKTIBATU EZ IZANA ZORIARI ERE LOTU BEHARRA DAUKAGU

Ofizialki bederatzi estatuk dituzte arma atomikoak, eta horien %90 Errusiaren eta AEBen eskuetan da. 1945eko abuztuaren 6an eta 9an AEBek Hiroshimara eta Nagasakira jaurtikitakoez geroztik eraso atomikorik berriz bideratu ez izana "disuasio-printzipioari" lotu zaio luzaz. Gaur egungo testuinguruak, tartean Vladimir Putinen mehatxuek, zalantzan jarri dute printzipio horren fidagarritasuna. Gainera, nahiz eta ahantzi, bonba bat nahigabe aktibatu daiteke. Istripua litzateke, istripu bat oinarri duen suntsiketa masibo bat... baina gertatu daiteke, eta iraganean ere –nahiz eta ez jakin– doi-doietarik saihestu izan ditugu. Estaturuek isilduriko kasuak argiratzen dabiltza aditu eta kazetari batzuk.

🔴 JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Istripurik gertatu ez izana armen gaineko kontrola perfektu bati esker dela dioen ideiarekin bukatu behar dugu". *Repenser les choix nucléaires. La séduction de l'impossible* ("Aukera nuklearrak birpentsatu. Ezinezkoaren sedukzioa") liburuaren egile Benoît Pelopidasen hitzak dira. Arma atomikoari ikuspegi geopolitikotik begiratzen dion aditua da eta nuklearrari buruz Frantziako Estatuko Nuclear Knowledges izeneko lehen ikerketa zentro independentearen sortzailea izan zen. Bonba nuklearraren hondamendia gure burutik desagerturik den heinean, istripu baten aukera ere bazterturik dugula deitoratzen du.

Alta, doi-doietarik saihesturiko istripuak izan direla dio, eta adibidetzat hartzen du 1961eko urtarrilaren 23an nahigabe hegazkin bonba-jaurtitzaille bat desegin izana Ipar Carolinako Goldsboro hiri gainean, bere baitan zituen bi bonbak askatuz –260 aldiz Hiroshimakoaren edukiera–. Kontua da lau segurtasun mekanismoetatik hiruk ez zutela funtzionatu bietariko batean: hegazkinetik askaturik, jausgailua ireki eta zartagailua aktibatu zitzaion. Azkenean funtzionatzen duen tentsio ttipiko etengailu bati esker saihestu zen

hondamendia, suertez zolarekilako kontaktuan aktibatu zelako. AEBetako Gobernuak afera gutxietsi zuen eta alderantziz, arma horien alorrean dagoen segurtasun heina goraiatzeko baliatu zuen gertakizuna. 2013an zabaldu zuten *The Guardian*-ek segurtasunean egon zen akatsarena, AEBetako Gobernuak gorderik atxikitako dokumen-

tuetan oinarriturik. Zortearren heinaz ohartarazteko ondokoa zehazten du Pelopidasek: "Hogei aldiz baino gehiagotan huts egin zuen hurrengo urteetan Goldsboron salbatu gintuen etengailu horrek, [bonba nuklearraren segurtasuna kontrolatzen dabilen] Sandia laborategiko artxiboetan ikusi ahal izan dugunez".



Eraso nuklearraren arriskua hor dagoela dio Pelopidas aditua, disuasio-printzipioa zalantzan jarriz.

Beraien armategia modernizatzen eta emendatzen dabilta nuklearra duten estatu guziak; eta arma nuklearrak estrategia militarrean duen zeregina fintzen dabilta.



CHRIS CONZ

Istripuaren arriskua hor da, eta seguruenik badira gaurko egunean ere doidoi saihesturikoak. Ondoko datua ere zabaldu zuen *The Guardian*-ek: Eric Schlosser kazetariak idatzitako *Atomic Gafes* liburuan irakurri daiteke 1950etik 1968ra 700 istripu saihestu eta isilean atxikiarazi zituela AEBetako Gobernuak.

Baina nahigabeko leherketaz gain, hautuzkoarena ere hor dela dio Pelopidasek. Azken urte honetako giroak hori oroitarazteko balio digula uste du: "Bonba nuklearren zartatzearen aukera begi-bistatik kendua genuen, eta ezinbestekoa dugun zaurgarritasun nuklearren kontzientzia ere galdua genuen. Gaur egungo mehatxuek balio digute oroitarazteko ahantzia genuen aukera hori erreala dela". Ukrainaren eta Errusiaren arteko gerrari begira mintzo da, eta zehazkiago, Vladimir Putinek behin eta berriz zabalduko eraso nuklearren mehatxuaz.

Tarte bat hartu, Kremlin jauregitik fokua zabaldu eta -ustez- ahal bezain segurki edukitako 13.000 arma nuklearrei begira jarri gara. Lehen eraso atomikoa -eta oraingoz bakarria- 1945ean izan zen, AEBek Nagasaki eta Hiroshimara bideratua. Ondoko ideiarri lotu ohi zaio

**1961eko urtarrilaren 23an
nahigabe desegin zen
bonba-jaurtitzailer bat
Goldsboro gainean,
bi bonba askatuz
-260 aldiz Hiroshima-.**
**Lau segurtasun
mekanismoetatik hiruk ez
zuten funtzionatu**

berriz erabili ez izana: "disuasio-arma" bat dela, hau da, suntsitzeko gaitasun ikaragarria izanik aurkariari erasotze nahia itzaltzen diola jasoko lukeen erantzun atomikoaren mamuak. Printzipio horri buruzko eztabaida piztu digu Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerrak, orain arte funtzionatu duenak ez delako erran nahi betirako balio duenik. Beste hitzez erranda, Errusiak zein Men-


debaldeak diote erasoak intentsifikatuz gero bonba nuklearren jaurtikitzea izanen luketela arropostua. Baina oreka hori benetan segurra da? Pelopidasek ez du horretan itsuki sinesten eta pario bat dela dio: "Mehatxuan oinarrituriko estrategia bat da, eta zaurgarritasuna segurtasun berme gisa finkatzen duen pario bat da". Baina jakina denez, pario bat irabazi daiteke edo galdu.

**ARMEN UGARITZEA
DAKARREN GARIA**

Aditu guziak ados dira errateko tentsio handiko giroak dakarrela orain arte zegoen arma nuklearren gutxitzeko joaren bukaera. Ofizialki dauden 13.000 arma bederatzetzi estatuen artean banatuak dira: 5.977 ojiba Errusiak; 5.428 ojiba AEBek; eta gero datoz anitzez urrunago, Txina bere 350 ojibekin; Frantzia (290 ojiba); Erresuma-Batua (225); Pakistan (165); India (160); Israel (90) eta Ipar Korea (20). "Beraien armategia modernizatzen eta emendatzen dabilta nuklearra duten estatu guziak; eta gehienek fintzen dituzte beraien erretorika nuklearra eta arma nuklearrak estrategia militarrean duen zeregina", dio SIPRI Stockholmgo Bakearen Iker-

Arma nuklearra duten estatuen armategi atomikoa

Ojiba nuklear kopurua, estatuka, 2022 hastapenean



Iturria: SIPRI

ketarako Nazioarteko Institutuko ordezkari Wilfred Wanek. Esanguratsua da, demagun, Errusia otsaila bukaeran atera izana Washingtonen eta Moskuren artean arma nuklearren kontrolerako zegoen START Berria itunetik. Errusiaren inbasioak urtebete egin bezperan heldu zen iragarpena. Itunak mugatzen zien arma kopurua, nahiz eta sinbolikoa izan, jarritako mugaren petik izanik ere badutelako bi aldeek milioika jende hiltzeko, guzia suntsitzeko –eta "negu atomikoa", hau da, eragindako erraustsarengatik tenperaturen apaltze orokortua ondorioztatzeko– heina. Gainera, akordioak ez zuen kontuan hartzen "arma taktikoa". Azken horri dagokionez, arma arinagoaren eta eztiagoaren fama eraikirik daukate alde guzietan, alta gezurra da: 1 eta 100 kilotonaren arteko

"Mehatxuan oinarrituriko estrategia bat da disuasio printzipioarena, eta zaurgarritasuna segurtasun berme gisa finkatzen duen pario bat da"

Benoît Pelopidas

indarra dute eta kontuan harturik amerikarrek Hiroshimara bidalitakoak 12 zituela, argi gelditzen da banalizatzeak dakarren arriskua.

TNP Arma Nuklearrak Ez Ugaritzeko Itunari buruzko X. Konferentzian ere ez ziren ados jarri iazko abuztuan. Berez, arma dutenak ez ugaritzeaz gain, arma-gabetzera ere engaiatzen dira; eta ez dutenak, berriz, arma nuklearra inoiz ez lortzera. Hori ere ez doa horrela, eta estatu batzuek ez dute beraien hitza betetzen. Adibidez, IAEA Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziak zabaldu berri du Irango lurpeko lantegi batean aurkitu dituztela %83,7an aberasturiko uranio partikulak –bonba lortzen da %90ean–. Frantziak ere 2021ean abiatu zuen itsaspeko nuklearrak emendatzeko programa bat. Hala ere, TNPrak gabe egoera okerragoa litzatekeela dio Gabriel Peri Fundazioak: "Nahiz eta ez den perfektuki bideratua, nuklear militarerako sarbidea mugatzea lortu du. Arma hori nahi zuten estatuen kopurua ttipitu da hamarkadaz hamarkada –alta 50 bat estatuk dituzte ikerketarako erreaktoreak, baita zentralak ere, hots, nuklear militar nahiko egingarria–". Beste testu inportantea da 2021eko urtarrilaren 22an indarrean sarturiko arma nuklearrak debekatzeko Nazio Batuen hitzarmena, gaur egun 91 estatuk izenpeturikoa (eta horietan 68k berretsitakoa). Oraingoz sinbolikoa da –izenpetzaileei bideratzen zaielako eta arma hori dutenek izenpetzea errefusatzen dutelako–, baina izenpetzaileen kopurua igo ahala presio antinuklearra ere igoko litzateke.

Guzi hori kontuan harturik, arma nuklearra "desakralizatu" beharra ikusten du Pelopidas: "Ez dira sustut beste beste armen heinean kokatu behar, biziaren eta objektu materialen suntsitzeko duten ahala azpimarratu behar da; baina, desakralizaturik, modu informatu eta argian hitz egiten ahalko genuke, ikusteko zer nolako lekua bideratu nahi diegun. Egiatasuna ezin frogatua duten ezaugarriekin bukatu behar dugu". ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Gregorio Muro

EUSKARAZKO KOMIKIAREN AITAJAUNA



ARTISTA EZ, ARTISAUA NAIZ, GAUZAK EGITEA GUSTATZEN ZAIT, ETA ONDO EGITEA



Iragan mendeko 1980ko hamarkadaren hasieran, *Ipurbeltz* aldizkarian argitaratu zituen lehen lanak. *Habeko Mik* etorri zen gero. *Justin Hiriart*, *Sorgin seinalea*, *Simon Besaluze*... ditxosozko homologazioa asmatu baino lehen homologatu zuen Muro Harrietek euskarazko komikia gurean eta European. Ikus-entzunezkoetan lan egin ondoren, erretretan sartu, Harriet argitaletxea sortu, eta euskarazko komikiaren aro urrezko hau eragin zuen.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Halaxe diote, euskarazko komikiaren aitajauna zaitugula...

Euskarazko komikiaren aitajauna ni? Euskalduna ere ez naiz eta! Zoriak etorrarazi nau honaino. Zinemazalea naiz txikitandik, zinema asko ikusitakoa. Hernanin bazen parrokiaren zinema aretoa, Zintzotasuna zuen izena eta gure aita zen proiektionista. Nire txikitako garaia *Cinema Paradiso* filmekoa da! Zinema ikusi baizik ez nuen egin, eta nik ere zinema egin nahi nuen, baina ez zen modurik, gurean ez zegoen eta dirurik. Herrian bazen mutiko bat

tomabista bat zeukana, eta egundoko inbidia ematen zidan. Komikizale handia ere banintzen, eta herrian biblioteka ireki zutenean, eta han lehenengo *Tintin* bat ikusi nuenean, dena koloretan, zeharo txoratu nintzen! Komikia, nirez, zinema zen, baina paperean. Eta laster hasi nintzen komikiak egiten, ahal zen moduan marrazten, edo narraستن, bederatzai urterekin.

Marrazkilari hasi zinen, hortaz.

Baina ez naiz marrazkilaria. Nola edo hala marrazten ikasi nuen, gauzak irudi

bidez kontatzeko neukan beharrak eraginda. Eta gaur egun ere ez naiz marrazkilari, eta hamaika gidoi egin baditut ere, ez daukat nire burua idazletzat ere, hizkera literarioa ez dut eta menderatzen. Ikus-entzunezkoaren hizkera, bai, horixe menderatzen dut nik, irudiaren eta hitzaren arteko lotura, irudiaren, testuaren eta azpitestuaren mundua.

Ez zarela marrazkilari diozu, baina *Ipurbeltz*-en komikiak argitaratzen hasi zinen, eta zeureak zenituen marrazkiak. *Iker* eta *Ixone* da lekuko.



Gregorio Muro Harriet

HERNANI, 1954



Iragan mendeko 1980ko hamarkadan hasi zen komikiak argitaratzen *Ipurbeltz* eta *Habeko Mik* aldizkarietan. Ordukoak ditu *Justin Hiriart*, *Jon eta Mirka* eta *Sorgin seinalea*, adibidez. Arrakasta handia izan zuten euskaraz eta, atzerriko zenbait hizkuntzataraz itzuliak izan ziren, baita Europan ere. Hurrena, ikus-entzunezkoetan egin zuen lan, harik eta erretretan sartzeko garaian, 2015ean Harriet argitaletxea sortu eta komiki zoragarriak bata bestearen ondotik argitaratzeari ekin zion arte: *Lotsa eta ahaztea*, *Mugako dragoiak*, *Anker...* Ikus-entzunezkoetan, berriz, ikusgai da sarean Harrieten *Zeinek gehiago iraun*, animaziozko lan zirrargarria, Oscar sarietara hautagai izana, euskarazko lehena. Hainbat sari eta merezimendu jasoa da.

Iker eta Ixone... tokitan dago! 1978, nire lehen lana! Erein argitaletxeak *Ipurbeltz* atera zuela jakin nuenean, *Iker eta Ixone* hartu eta Julen Lizundia-ri joan nintzaion, berak egiten zuen eta argitaletxeko buru. Ez nintzen marrazkilari, esan dut, baina komikia eraman nion, marrazkiak neuk eginak. Ez nuen euskararik buruan, komikia egin besterik ez nuen nahi, komikiak egitetik bizi. Jakina, ez zegoen modurik, pentsatu ere ez, baina istorioak irudiz kontatzea gustatzen zitzaidan, eta hortixe hasi nintzen. Kontua da Ereinek nire lana argitaratu zuela. Gero, egun batean, Julenen [Lizundia] deia jaso nuen: “Zure marrazkiak ez dira txarrak...”, hasi zen, eta larriak hartu ninduen, zer esan behar ote zidan, “...baina zure gidoiak oso onak dira. Zer iruditzen zaizu inorentzako gidoiak idaztea?”. “Bai, jakina”, erantzun nion. Eta halaxe hasi nintzen [Frantzisko] Fructuoso, [Daniel] Redondo eta beste zenbait marrazkilari-entzat istorio idazten.

Eta hasiera hori eta gero, nola heldu ziren zure komiki eder haiek? *Justin Hiriart*, *Sorgin seinalea...* bestsellerrak!

Ereinekin *Ipurbeltz*-en ari nintzen garaian, Bartzelonako lehen komiki aretoa antolatu zuten. “Goazen geu ere!”, esan genuen Fructuosok-eta. Ohartuak ginen euskaraz publikatuta, orduan baino gehiago ez zeukatela ordaintzerik, eta gure lana beste hizkuntzaren batean argitaratzea zela bidea; bizimodua komikiak eginez aurrera atera nahi bagenuen, behintzat. Horrela pentsatzen lehenak izan ginen, aitzindariak! 1981eko maiatza zen. Eta Bartzelonara joan ginen, gure lanak erakutsi genituen, eta antzarak ferratzera bidali gintuzten editore eta argitaletxe guztiak.

Hara, ez zuten zuen lana aintzat hartu!

Une hartan ez, behintzat! Baina tabernan geundela, Argentinako marrazkilari bat etorri zitzaigun. Nonbait, aurkezpenen bat-edo egin zuen liburu dendaren batean, eta Fructuoso ezagutu zuen. Horrela, tabernan ikusi gintuen –Fructuoso ikusi zuen, alegia–, eta gurekin batera jarri zen. Juan Jimenez zen, Mendozatik (Argentina) Bartzelonara heldu berria, eta komiki album bat zekarren, guztiz eginda.

Ez zuen bere herrialdera itzultzeko asmorik, Espainiako Estatuan gelditu nahi zuen, eta komikiak egitetik bizi.

Eta?

Eta? Laguntza eskatu zigula: “Hitzor-dua dut Frantziako editore batekin, baina ez dakit batere frantsesik, eta berak ere ez batere gaztelaniarik. Niri laguntzeko modurik bai inork?”. “Nik hainbestean dakit frantsesez, lardas- katzen dut”, esan nion. Eta biok joan ginen. Glenat zuen editorea, oso argitaletxe txikia zuen orduan, baina ikaragarriko munstroa du gaur egun. Lagundu nion, beraz. Gogoan dut Juanen [Gimenez] albumak izena zuela *La estrella negra* [Izar Beltza], zientzia fikziozko istorio bat, 46 orrialdekoa. Gimenezek erakutsi, eta Glenatek erosi! Halaxe izan zen. Guk, garai hartan, gehienez 8-10 orrialdeko istorioak egiten genituen *Ipurbeltz*-en!

Berrogeitaka orrialdeko albumik ez, alegia.

Ez, bada! Eta gogoan dut, gau hartan, hotelean, Fructuoso eta biok hizketan, eta esan nion: “Horixe egin behar dugu guk ere, albuma! Bi istorio ditut buruan, bata zientzia fikziozkoa, *Jon eta Mirka*; bestea, baleazaleei buruzkoa”. Fructuosok zientzia fikziozkorik ezetz, ez zitzaiola gustatzen. “Baleazaleena!”, erabaki zuen. Maiatzean ginen, eta esan nion Fructuosori: “Oraintxe hasiko naiz baleazaleen gidioa lantzen, zeu ere marrazkiak egiten hasteko. Urtarrilean azoka da Anguleman, eta ea ordurako albuma erakusteko moduan gauden”. Eta, 1982an, hamabost orrialde osatu, eta *Justin Hiriart* komikiaren azala ere egin –balearen buzta- na ageri duen hori–, eta Angulemara joan ginen. Eta beste inori baino lehen, aurreko urtean ezagututako Glenati joan gintzaizkion, eta ikusi zuen orduko, baietz esan zigun. Horrelaxe hasi ginen.

Hainbat titulu etorri ziren gero, harrera ezin hobea izan zutenak, asko.

Justin Hiriart eta gero, *Jon eta Mirka* etorri zen, Daniel Redondoren marrazkiekin. Eta, hurrena, *Sorgin seinalea*, hura ere Redondoren marrazkiekin. Frantsesez ere atera zuten, eta bestsellerra izan zen: 70.000 ale baino gehiago saldu ziren. *Eguzkiaren izerdia*, [Jose Manuel] Mataren ilustrazioe-



kin; *Simon Besaluze*, Luis Astrainekin... Aurrera ari nintzen. *Habeiko Mik* publikatzen hasi ziren, eta horrek ere asko lagundu zidan, Ereinekin egiten nituen proiektuak baino handiagoak egiteko aukera izan nuen eta. Baina, bidean, bakarrik gelditu nintzen. Bata, irakasle lanari lotu zitzaion; bestea, Espainiako telebistan hasi zen lanean... Nirekin lan egindako marrazkilariek komikiak marrazteari utzi egin zioten.

Eta bakarrik gelditu zinenean?

Ikus-entzunezkoe-tan hasi nintzen. Irusoinen eta Asegarce-Baineten lan egin nuen. Hain zuzen, orduantxe ohartu nintzen: sortzaile nintzen, hau eta hura nintzen, euskarari esker! Euskarari zor nion sortzaile izatea. Ez naiz euskalduna, ez dakit euskaraz. Behin halako, euskaraz ikasten saiatu nintzen, Hernaniko AEKn eman nuen izena, baina Frantzia denak emanda lanean jardun behar izan nuen garaia etorri zen, ez dakit zer haizek jo ninduen, eta ez nintzen gai bi gauzak aldi berean egiteko: gidoiak behar bezala idatzi, eta, gainera, hizkuntza bat ikasi.

Larriturik bizi nintzen, eta euskaraz ikasteari utzi nion.

Hinki-hankarik gabe esaten duzu ez zarela euskalduna, ez dakizula euskararik, eta, hala ere, euskarari zor diozula sortzaile izatea...

Dudarik ez, horretan. Hazteko modu bakarra dago, eta da gauzak egitea.

Ezer egiten ez baduzu, ez zara inoiz

“

Komikia saltzen da, baina neurrian. Alegia, ez autore profesional bati eusteko bezain kopuru handian. Hargatik, esportatzeko moduko obrak egin behar ditugu

haziko. Berdin, sortzaile izateari dagokionean. Eta ni, euskarari esker egin naiz sortzaile. Behin, halaxe esan nion neure buruari: “Ez naiz euskalduna, baina beti saiatuko naiz euskararen alde, euskaraz asko baino gehiago eman dit eta”. Eta kito. Ez dago besterik.

Ikus-entzunezkoetan egin zenuen lan, euskarazko komikigintzatik ezkutatu zinen, baina komikietan zinen berriz ere 2015ean, argitaletxea eraturik.

2012an, marrazkilaria batek esan zidan berriz ere komikiak egiten hasi nahi zuela. “Goazen Angulemara!”, berak. Baietz esan nion, eta joan ginen. Baina ni denbora galdu alde joan nintzen,



KOMIKIAK SALTZEN

“Bai, komikia saltzen da, baina neurrian, ez autore profesional bati eusteko bezain kopuru handian. Hargatik esaten dut beti, esportatzeko moduko obrak egin behar ditugula. Euskaraz irakurleak badira, bai, baina asko izanda ere, ez dira aski. Eman dezagun 1.200 ale saldu dituen komiki baten kasua. Hamasei euro badu prezioa, eta horren %10 autorearentzat bada, 1.800 euro jasoko ditu... urtebeteko lanaren ordainetan! Eusko Jaurlaritzaren bekarik gabe, eta komikiaren eskubi-deak atzerrian saldu gabe, ez dago modurik”.

PENTSAMENDUA

“Animaliak gara, eta taldekoiak, baina alfa arrak ere badira gure artean. Alegia, beti izango da baten bat aginduko duena, nahitaez. Inork agintzen ez duelako zera hori utopia hutsa da. Eta, bestalde, botereak usteldu egiten du pertsona, eta botere absolutuak absolutuki usteltzen du. Uste dut botereak kontrolpean egon behar duela beti, kuestionatuta, zelatatuta. Eta pentsamendu hori nire komikietan dago, isilgordean, modu sotilean, baina hortxe, eta pentsamendu horrek aztarna uzten du, irakurleari pentsarazi egiten dio”.

Azken hitza

GOZATU

“Profesionalizatu naizenetik, nire irakurle-begirada aldatu egin da, ez dut garai batean bezainbeste gozatzen. Gaiari buruzko jakitatea dut, hau eta hura aztertze eta kritikatzeko jakintza, eta horrek galarazi egiten dit irakurketaz gozatzea. Zerrikeria galanta da, baina egia”.

beste gabe, eta, hala ere, garai bateko Glenatekin mintzo, esan zidan nire lan bat, *Eguzkiaren izerdia*, frantsesez atera nahi zuela. “Primeran!”, esan nion. Ondoren, Bartzelonako komiki aretora joan ginen – orduan ere bestela gabe ni, artean Baineten ari bainintzen lanean, laburmetraiak egiten –, eta, han, betiko lagunekin hizketan, Ponent Mon argitaletzekoak esan zidan gaztelaniaz atera nahi zuela komiki bera. Eta, gero, esan zidan: “Getxoko komiki azokan izango naiz. Etorriko zara? Badakizu, betikoa, erosleei kasu egin, komikiak sinatu...”. Ez nion ezetzik esan.

Eta Getxoko komiki azokan...

Garai bateko irakurleak etorri zitzaizkidan, nire lana *Habeiko Mik*-en edo beste nonbait irakurritakoak. Eta, bat-batean irakurleekin berriz topo egitea hunkigarria izan zen, iraganeko garai ederrak ekarri zizkidaten gogora –inoizko garairik ederrenak, beharbada–, eta, horretan, handik laster jubilatzeokotan nengoela, erabaki nuen jubilatzean geldirik ez egotea, gauzak egitea: “Komikira itzuliko naiz, baina, oraingoan, editore!”. Eta ez zen erraza izan, baina neure argitaletxea sortu nuen.

2017az gero, Eusko Jaurlaritzak komikiak sortzeko bekak eman ohi ditu. Beka horien eragile izan zinen...

Neuk proposatu nuen. Ikus-entzunezkoetan ari nintzenez, askotan egin nituen diru-laguntza eskaerak, izan gidoia idazten laguntzeko, izan film-laburra egiteko, eta, inoiz, baita film-luzea egiteko ere. Eusko Jaurlaritzak hainbat laguntza ematen zituen ikus-entzunezkoei laguntzeko. Komikia bultzatzeko, aldiz, batere ez. Joxean Muñoz zen garai hartan Jaurlaritzako Kultura sailburuorde. Komikiak egindakoa da Muñoz, eta badaki zertaz ari garen komikiaz ari garenean. Askok

ez dakite-eta zer den oraingo komikia. Komikiak sortzeko diru-laguntzak behar genituela esan nion, Espainiako Estatuan ehun milioi euro baino gehiago sortzen zituela komikiak – zergen bidez, besteak beste –, eta zilegi zela sortzen zituen zergen zati bat komikian bertan inbertitzea, sortzaileentzako bekak sortuz, adibidez.

Eta horrela sortu ziren oraingo beka horiek.

Ez zen hain erraza izan. 2016. urtea zen, eta diru partida guztiak Donostiara [Europako Kultur Hiriburua] begira zeuden. Joxean Muñozek esan zidan, hori igaro eta gero hitz egingo genuela, eta, bestalde, sektorearen eskaera izan behar zuela, ez bakarrik nirea. Logikoa. Eta sektorea bildu nuen: Astiberri argitaletxea, *Xabiroi* aldizkaria, eta hirurok. Eta berriz ere eskaria egin, eta oztopoak, eta hau eta hura. Gogoan dut Astiberriko ordezkariak esan zuela: “Ez dugu lortuko!”. Eta esan nion: “Eutsi egin behar diogu: bataila bat ez da galtzen, abandonatzen ez den arte”. Denbora joan zen, baina, tarteka, Joxean Muñozekin egiten nuen topo, Donostiako Zinemaldian edota beste nonbait, eta gauza bera esaten nion beti, komikiari lagundu beharra zeukatela: “Eusko Jaurlaritzak –edo diputazioek, berdin zait–, dirua biltzen du komikiaren kontura, baina ez dio trukean batere itzultzen”. Uste dut bera ere aspertu zela gauza bera aditzen, eta, halako batean, bilera bat eratu zuen, sektorea bildu zuen, eta baietz esan zigun. Eta sortzaileentzako bekak abiarazi zituzten.

Sortzaile zaitugu zeu ere, gidoilari zaildua, eta editore, eta enpresari. Denak batean zu!

“Beharra eragile handi” esaten dute, eta halaxe da egia. Ez dut nire burua artista-

tzat, ez, behintzat, lurretik tarte bat gorago lebitatzen duen pertsona berezizat. Artista ez, artisaua naiz, gauzak egitea gustatzen zait, eta gauzak ondo egitea. Kito. Bestalde, egiten dudana saltzeko premia dut, egiten dudana horretatik bizi ahal izateko, eta, azkenik, besteri laguntzeko gogoia edo enpatia dut, egiten duten horretatik bizi ahal izan daitezten. Ez dago besterik. Eta horrek, nahitaez, gauza mordoia egitera eramaten nau. Eta egiten ez badakit, ikasi egiten ditut.

Nola ikasi dituzu horiek denak? Gidoiak egin, komikia editatu, argitaratu, saldu hemengo eta atzerriko merkatuetan...

Bideak berak erakutsi dit, egin dudana bideak berak. *Ipurbeltz*-en ari nintzela, Bartzelonara joan nintzen, eta handik Angulemara. Eta bideaz ohartu nintzen, eta bidean jendea ezagutu nuen. Oso gauza inportantea, jendea ezagutzea. Orain, joan azoka batera, editore gazte batzueganana jo, eta ez naute ezagutzen. Baina hortxe dut beti Jacques Glenat! Haren telefono pertsonala dut, duela 40 urte ezagutu genuen elkar, eta bata bestea ikusten dugunean, hortxe jotzen du beti aldarria: “Hemen dira euskaldunak!”. Eta komikiak bata besteari saltzen eta erosten hasten gara.

Jendea ezagutzea...

Oso gauza inportantea, esan dizut. Beste editore bat ezagutu nuen, frantziarra hura ere, argitaletxea urrearen prezioan saldu eta errugbi taldea erosi zuena. Jakin dudanez, ediziora itzuli da, argitaletxe handi bat hartu du eta komikiak argitaratzen ari da. Parranda ere eginak gaude, eta haren atek zabalik ditut, beste inork baino erraztasun handiagoak ditut harenengana heltzeko. Bidea egin dut, bideak berak erakutsi dit, ez dago sekreturik. ●

2023ko martxoaren 23a
Gaztelu Aretoa, HENDAIA

EUSKAL
SOZIOLINGUISTIKA
JARDUNALDIA
2023

www.soziolinguistika.eus/jardunaldia

GAZTEAK MINTZO:
DISKURTSOAK ETA
ETORKIZUNERAKO
PROIEKZIOAK

Sustatzailea:



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA IRANUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Euskararen
erakunde
publikoa
Office public de
la langue basque



H-C-E VILLE
D'ENNAVE
HENDAKO
HERRIA



Loratuko da Bilbo

Loratuko da Bilbo eta itzuliko da euskara zazpi edo hamazazpi kale estu zalapartatsuetan oihartzun egitera, eta zabalduko da zabalguneez eta luzatuko da auzorik auzo, Otxarkoagaraino eta harantzago. Udaberria helduko zaio gure hizkuntzari mendeetako nequaren ondoren. Udaberri honetan gertatuko da. Loraldia jarioko zaio Bilbori. Bazen garaia! Bada orena!

Martxoan goiz hasi eta udaberria sartua dela jarraituko du loraila aurreratuak hirian, eta 150 sortzaile, artista eta gehiago arituko dira, hamaikatxo egunetan beste horrenbeste proposamen plazaratuz han-hemenka.

Guztiok behar dugu udaberria, eta batez ere euskarak du beharrezko Bilbon. Etorriko da, bada, heldu den astean, nafarrek dioten eran. Nafarroak babesitu baitzuen euskararen iraupena Bilbon eta inguruan, harik eta Gaztelako jauntxoek bertoko jauntxoekin senidetu eta Gaztelako hizkuntza bertonean ere derrigortu zuten arte. Eta horrela dirau, modu anakronikoan derrigortuta Bilbon gaur egun ere. Aspaldi izan baitzen euskara bilbotarren hizkuntza nagusia, eta aspaldikoa baita euskararen aurkako eraso eta Gaztelakoaren inposaketa gure artean.

Horrela izan bada eta horrelaxe bada gaur egun ere, zer egin behar dugu euskaldunok Bilbon? Euskara loratu, jakina. Hazia erein, loreak landatu, lorategia zaindu. Ez utzi inori lorerik mozten. Eta

Oraingoan betilorea
landatuko ote
dugu, bada, Bilbon.
Horrenbeste lorazainen
artean lortuko ote
da betirako loratzea
euskara bertonean?

belar gaiztoak kendu, euskarak bizi-espazioa izan dezan.

Lorazain ugari bilduko gara Bilbon udaberri honetan. Bernardo eta Ruper datoz *anphora* bete-betea hautsi eta barruko altxor guztiak barreiatzera; handik gutxitara Gabriel bera, Bilbon dabilena, Ibaizabalen solastuko da eta Otxarkoagan gaztetu. Benitok askatasunari oda egingo dio Arriagan. "Hauxe da despedidea" zioskun Mauriziak, esandakoa jan eta erromeria bizian bizkortuko zaigu Alondegian. Joseba be hurreratu egin baita urrunetik Bilbora oraingoan, eta sortzaile berrien harrobi batean lanera lotu! Hainbeste izango direnez sortzaile berriak loratze honetan...

Neguak, baina, ez du Bilbo abandonatu nahi. *Winter is coming* aldarria errepikatzen dute neguko injustizia jauregie-



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

tatik. Arrazoi komertzialak direla medio markatzen dituzte gaintitulu arrotzez gure istoriorik kutunenak. Anbotoko koba bera kartzela betierekotu dute, Marijaiari hirugarren gradua ukatuz. Baina agian alferrik dabilta, udaberria datorrelako eta Bilbo loratu egingo delako orain arte inoiz ez bezala.

Zalantza piztu da, hala ere, lorazainen artean, ikusi baitugu, lehenago ere, hiria loratzen aldi baterako, ikusi ditugu lorazainak korrika batean kaleetan zehar, baina etorri bezala alde egin dute jarrera, eta berriro ere lehenago gelditu gara. Ikusi dugu, baita, ahobiziz eta belarriprestez betetzen zirela txokoak, baina egun bateko edo astebeteko loreak ziren horiek ere, eta ondoren ahoak mutu eta belarriak gor ziren berriro.


Oraingoan betilorea landatuko ote dugu, bada, Bilbon. Horrenbeste lorazainen artean lortuko ote da betirako loratzea euskara bertonean? Zer beharko dugu horretarako? Horiek udaberri bezperetan entzuten diren galderak.

Erreparatu behar diogu gure hiriaren historiari. Lehen zergatik jarri zen euskara galbidean, eta zergatik hedatu zen landare arrotz inbaditzaile gisa Gaztelako barbaroa. Historiak argi erakusten du hori: boterea eskura zuten jauntxoek derrigortu zutelako. Gauzak bere onera itzultzeko, euskara Bilbon eta Euskal Herri osoan landatu eta betiloretu ahal izateko, bertako herritarren boterea eratu behar dugu. Hori bai loraldia. ●

Publizitatearen kritikarako



TERE MALDONADO
FILOSOFIAKO IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Erredukzionista naizela esango didazue, baina nik honela ikusten dut: zibilizazio-krisian murgilduta gauden aldera, gizarte gisa daukagun arazo potoloenetako bat publizitatearen hedapen paregabea da. Hain dago hedatuta bazter guztietatik, non, askotan, ez baitugu ikusten ere, arnasten dugun eta mugitzen garen airea ikusten ez dugun bezala.

Eta, orduan, galdetuko didazue nik nola ikusten dudana, arrazoi osoz. Egia da; agian laster tokatuko zaidalako Pentsamendu Kritikoa izeneko irakasgaia ematea, munduaren jabeek publizitate manipulazio maisulan gisa asmatu dutena. Hasi naiz begirada kritikoa zorroztan, entrenatzen joateko. Ez iparririk gabe, baizik leku egokietara apuntatuz (faborez, ez galdetu orain nork erabakitzen duen zein den leku egokia, horrela ezin baitugu aurrera egin). Gustatuko litzaidake ikasgai hori asmatu dutenei gertatzea filosofiako irakasle batek *El Mundo Today* aldizkarian bere ikasleei buruz kontatzen zuena: “Kritikoak izateko behar dituzten tresna guztiak ematen dizkiezu, eta hori erabiltzen dute emandako tresnekin izateko kritikoak. Amorragarria da”. Ni, ikasle horiek bezala, munduaren jabeek xake-mate egin nahian nabil, fandangoaren buelta bila-

tuz, hatzak gurutzatuta: euren buruaren garbiketara egiteko asmatu dutena, buelta dadila *boomerang* baten legez eta sar dadila haien bekokiaren erdian. Ez dakit aterako zaidan.

Harira, desbideratu naiz-eta: publizitatearen inperioa, askotan ikusezina baina beti eraginkorra, bazter guztietara hedatu da. Bereziki igartzen da sarean, zer esanik ez sare sozialetan, publizitatez betetako esparruak bilakatu baitira. Irakurketa eta ikustaldi oro eteten eta oztopatzen duen publizitatea etengabea eta haserregarria da (kasu honetan, bai, oso agerikoa). Iragarki argitsuz, markaz eta logoz, salmentako erakuslehoiz gainezka dugu bizitza. Antza, bankuak irribarre eta goxo hitz egiten duten izakiak dira, erregai konpainiak atseginak eta ingurumen-*friendly* zerak diren moduan. Honelako mezuak egun santu osoan, etengabe, tantaz-tanta (edo zurrustaka, irratiko iragarki oihukariak, adibidez), behin eta berriz, arima hezur muineraino blaitu arte.

Arrastaka eramaten gaituen korrontetik burua pixka bat ateratzea lortzen badugu, konturatuko gara publizitateak (askotan ikusezina baina beti eraginkorra) gauza oso bitxiez konbentzitu gaituela. Adibidez: bankuen edo argin-

dar-konpainien nazionalizazioa bezalako proposamenak muturrekoak eta arriskutsuak direla eta ezin direla ezta aipatu ere egin (adi, oinarritzko premiekin espekulatzearen ondorioz onura lotsagarriak lortzen dituzten konpainiez ari naiz). Ez dute zertan horrela esan behar, hitzez-hitz (ez da ikusten), baina denek betetzen dugu (eraginkorra da): inori ez zaio burutik pasatzen honelakorik mahaigaineratzea, ezta ezkerreko alderdiei ere (tankera horretako proiektuak defendatzea betebeharrak izan behar zuten horietaz ari naiz).

Hor dagoena ikusteko gaitasuna itozten digun publizitate ikusezin baina eraginkorra saihestea lortzen badugu, honelako proposamenek, berriz, ideia zentzudunak dirudite. Are gehiago: beharrezkoak. Arraro bihurtzen dena zera da: aurten diru-kopuru ahoska ezin irabazi dituen argindar-konpainia batek eztabaida bat antolatzea, ekidin nahi omen duen energia-pobreziari buruz (berak eragindako pobreziari ari naiz, dirutza hori irabazteak ahalbidetatu diona). Izan ere, hobeto pentsatuta, eta ez modu bereziki kritikoa, agian publizitateak eragozten diguna ez da pentsamendu kritikoa bakarrik, baizik eta sen on eta arrunta ere bai. ●



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Betiereko sua

Lehen bioletekin bat, mendiko suak heldu dira tenoreko, beren desmasiek jarraikiak. Eta ondoren protestak, aldizkari honetara bidali ohi ditudanak barne.

Orain dela bi urtekoa ikaragarria izan zen. Lapurdi, Nafarroa eta Gipuzkoan hedatu ziren suteak, Larrun menditik Enderlatsaraino. Orotara 2.300 bat hektarea erraustuak, eta gutxi egin zuen, ez baitzen jende zauriturik edo hilik. Aziendak bai, bizirik erre ziren, animalia txikiak bezala. Eta borda, oihan, larre eta alhagiak.

CADE-ek eta ingurumenaren defentsan diharduten beste taldeek ohartarazi zuten dozenaka urte beharko direla segurki nahitara piztu su horiek deuseztatu zuten bizia indarberritzeko, eta onartezinak direla behin eta berriz biodibertsitatea horrela kaltetzen duten su kriminalak; kriminalak baitira zinez, eta ez “baimendu gabeak”, batzuek eufemismoz deitzen dituzten moduan. Nork eginak? Ofizialki ez da jakiten.

Eta hola urtero-urtero, temati, betiere.

Aurten Iruñeraino iritsi da ke usaina. Gero, antizikloia finkatu eta haizea gelditu zenean, gehiegizko partikula finen metaketak alerta joarazi zuen. Prefetak autoen abiadura murriztarazi zuen, bai eta kanpoan edozein su debekatu ere... 24 orduz. Handik laster artzainei zuzen-

du zitzaien, otoi, zintzoak izan zitezela, ez zezatela mendia gehiegi erre, edo bederen banan-bana egiteko, ez denok batera.

Bitartean *smog*-a arnastua zuten jandak hainbat lekutan –Maulen piloa– eta zenbaitek ahotsa goratu zuten, ez dutela pozoi hori onartzen tradizioko ohiduratik badator ere, tradizioak oro ez direlako egokiak. Bestalde, denok daki-gula, batez ere artzain xaharrek, suteek orain hartu duten hedadura ez dela antzina sekula ikusi.

Su aski elkarteak, bospasei urte haue-tan borrokatzen baita holako suntsiketa galarazteko, ozenki salatzen ditu arazoan estatuak duen erantzukizuna eta europar finantziario sistema aldrebesa: Nekazaritza Politika Bateratuak belaien azaleraren arabera banatzen ditu dirulaguntzak, hau da, belar gehiago eta mozkin politago. Ondorioz, arra bete baino gorago hazten den guztia hauts bihur!

Su zaleen argudiaketa: suak beharrezkoak direla mendia garbitzeko, eta otsail honetan piztu direla, aroa gisa hartakoa izanki. Kontua da eskola oporrak direla aldi berean, haurrak kanpoan dabilta eta sudur guztiek ez dute kedar usaina gustuko. Beraz, azalduko zaie betidanik ditugula sute horiek, arbasoengandik heldu zaizkigula, gure jatorrikoak direla. Eta abar. ●



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Gizonaren maitasuna

Hemen aipatuko ez dudan ekitaldi bat aitzakia, lagun min batek Gizonaren maitasuna (*Tradescantia fluminensis*) landarea oparitu zidan, boller bati oparitzeko landarerik aproposena iruditu zitzaiolako. Etxeko egongelako apalategi batean jarri genuen, aste batzuk lehenago pisukideak ekarritako Adanen saihetsa (*Monstera deliciosa*) landare erraldoiaren alboan. Patriarkatuari omenaldia zirudien aldaretxo hark egun gutxi iraun zituen; Gizonaren maitasunari orban zuriak eta zuloak ateratzen hasi zitzaizkion, eta eguzki falta ze-

lakoan, landare gehiago genituen beste txoko batean jarri genuen. Emaitza: hil baino lehen, gainontzeko landare guztiak kutsatu zituen.

Bollera baten eta Gizonaren maitasunaren arteko ezinezko bizikidetzaren bromaz aparte, landareen izenei erreparatuta, anekdota maskulinitate hegemonikoaren eta maitasun erromantikoaren arteko alegoria iruditu zitzaigun. Adanen saihetsaren alboan txiki eta xume sentitzen zenez, auto-suntsiketari ekin zion, bidetik aurkitu zuen guztia berarekin eramanaz. Besteak akabatzen hil zen. ●

Maitasun kooperatiboaz



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Mikel Martin Conde herrikide eta burkide maitea betirako agurtu dugu artikulu hau idazten hasi berritan, eta tristura kolektiboa herrian zabaldu bada ere, penarekin batera Mikelen bizitza eta borroka ospatzeko aukera eman digu. Erakutsi digu borrokan ebakipuntuetan etorkizun emantzipatuak ikusten, eta horrek Oreta/Errenteriako herritarren eguneroko bizitzan eragin handia izan du. Erakutsi digu, baita ere, sexualitatearen gozamina eta harremanak eraikitzea aske eta konpromisoz egin daitezkeela, bestelako borrokekin lotuta daudela, maitasuna politikoa dela.

Alain Badiou filosofo komunistak idatzi zuen: "Maitasuna, batez ere, eraikuntza iraunkorra da, abentura setatsua. Benetako maitasunak arrakasta iraunkorra du, batzuetan zailtasun handiekin, espazioak, munduak eta denborak proposatzen dizkieten oztopoen aurrean". Esan zuen diferentziatik proiektu berri eta iraunkorrak garatzeko aukera dela, eta ildo hori jarraituz lantzen dugu kooperatibismo eraldatzailetik interkooperazioa. Maitasun kooperatiboaz ari garenean, bizi

Harremanak aske eta konpromisoz eraikitzea denon kontua da, transfeminismoa, ekonomia eraldatzailea edo herritarren eguneroko behar materialak diren bezala

proiektuen harremanen eraikuntzaz ari gara, irauteko egiten duguna, gure proiektuen erresilientzia gaitasuna handitzen duena, parekoaren diferentzia onartuz, kolektiboan, ekonomian ere harreman aske eta konpromisodunak garatuz. Uste dut ez dagoela harreman kapitalista hegemonikoetatik aldentzeko beste biderik.

Ez da bide erraza, maitasun kooperatiboak denbora, espazioa eta ba-

liabide materialak behar dituelako, baina hori ere eginez sortzen da, eta horregatik gure kooperatibatik lan denbora asko eskaintzen diogu eremu horri. Emaitzak nabarmenak dira Pirinioan lurralde eraldaketa nodoak sortzean, Iparraldeko ekonomia sozial eraldatzaileko AHA federazioa martxan jartzean, eta Euskal Herrian zehar ernatzen ari diren tokiko subjektu eraldatzaileak ikustean. Aurrera begira ere Olatukoopen harremanak maitasunez landuko ditugu, askatasuna, konpromisoa eta lurralde kohesioa ardatzean jarrita. Hemen aurkitu dut nik borrokarako bide eder bat.

Mikelekin ez nuen kooperatibismoaz askorik hitz egin, herriko egoera eta etorkizuna izaten genuen mintzagai, baina badakit lan burujabearen alde eta kooperatibak sortzeko egiten dugun borroka estimatzen zuela. Harremanak aske eta konpromisoz eraikitzea denon kontua da, transfeminismoa, ekonomia eraldatzailea edo herritarren eguneroko behar materialak diren bezala. Ebakipuntuetatik harago bidea egiten jarraituko dugu, mila esker Mikel! ●



hernaniko ibilbide morea

oroimen historiko feminista baterantz, beste pauso bat

martxoak 26 | 11:30 | gudarien plaza







OROIMEN HISTERIKOA

podcast berria Nagore Irazustabarrenarekin

*Historia diren istorioek txoratzten
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIAN eta
audio plataforma
guztietan

 ARGIA.eus/podcast

LABORANTZA LURREN DESAGERPENA

Espekulatzailleen parean
Safer-ak dituen mugak
begi-bistakoak dira



Arbona Lurraren aldeko borroka-gune izan zen 2021ean Berrueta eremua.
120 egunez okupatu zituzten lurak, espekulazioa salatzeko.



Batean Arbonan, bestean Bidarrain, ondokoan Lakarrin, laborantza lurren gaineko espekulazio kasu andana plazaratzen da aldi hauetan. Alta, fenomenoak ez da berria, baina herritarren eta ELB zein Lurzaindiaren begirantza lanari esker argiratzen dira dirudun handi horien salerosteak. Safer egiturak du laborantza lurren kudeaketaren ardura Frantziako Estatuan, baina legediak bideratu eskumenei dagokienez, bistakoa gelditzen da ezinak ere dituela. Arteka juridiko horietaz baliatzen dira espekulatuzaileak, Safer-ak dituen lehentasunez erosteko eskubideak saihesteko gisan. Fenomenoa bere osotasunean hartu nahi izan dugu, arazoaren konplexutasuna doi bat argitzeko asmoz.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Urtero 600 hektarea laborantza lur desagertzen dira Ipar Euskal Herrian. Etxegintzara, ekonomiaren beste sektoreetara edota garraiobideetara bideratuak izaten dira, jaki ekoizle funtzioa behin betikoz galduz. Baina bestela ere desagertzen dira lurra: laborari ez direnak erosten dabilta, prezio goretan, aisialdi-kontsumo logika batekin. Azken garaietan aktualitatean kokatzen dira gisa horretako salmenten kontrako mobilizazioak.

Nahiz eta fenomenoak berria ez izan, 2021eko Arbonako Berrueta eremuko lurren salerostearen kontrako borroka jarri zuen arazoa mahai gainean. Hamabi hektarea eta hiru bastiza 3,12 milioi eurotan saltzeak kexua eta ezinegona piztu ziren ELB eta Lurzaindiari eta lekua okupatzen hasi ziren. Okupazioak 120 egunez iraun zuen, Lurrama topaketarekin bukatuz, zeinetan 6.000 herritarrez gora juntatu ziren. Borroka ekarri zuen jabeak ondasuna salmentatik kentzeko erabakia. Urte bat geroago, haatik, berriz jarri zituen salgai, prezio berean baina aldi horretan soilik hiru eraikinak eta lau hektarea; eta beste behin, mobilizazioari esker Parisko erosleek gibelerak egin zuten. Bi irakaspen atera ziren Arbonako afe-ratik: bata, borrokatzeak merezi duela, eta bestea, joera espekulatuzaile hori legala dela, eta gaur egun ezerk ez duela oztokatzen ahal –ez bada herritarren presioa...–.

Notarioen partetik, laborantza lurren saleroste guzien berri jasotzen du Safer izeneko egiturak, eta ondasunak laborari esku gelditzeko tresnak baldin baditu ere, eguneroko errealitateak erakusten digu kasu batzuetan ezinean dela. Safer-ak 1960. urtean sortu ziren, eta nagusiki, laborantza lurren kudeaketaren ardura du laborantza ministerioari loturiko sozietate horrek. Konkretuki, salmenta promesa errezibitu eta bi hilabete dituzte ihardesteko: edo lehentasunez erosteko eskubidea baliatzen du –eta kasu horretan ondasuna eskuratu eta hautagai duen laborariari bideratzen dio–, edo prezioa berrikusteko lehentasunezko eskubidea du aktibatzen –kasu horretan, espekulaziotik at dagoen beste prezio batean erostea proposatzen dio jabeari–, edo ez du esku hartzen –notifikazioan dagoen salerosteari bidea egiten dio–.

Arazo nagusia da batzuetan ezin duela ezer egin, eta legaltasun osoz desagertzen direla eremuak, preempzio edo lehentasunez erosteko eskubidea bideratzeko baldintzak ez direlako betetzen saleroste kasu zehatz batzuetan. Bigarren muga potolo bat ere du gaur egungo antolaketa: jabeak du azken hitza eta Safer-ak proposaturikoa errefusatu dezake, espekulazioarekin segitzeko, nahi bezain beste. Goazen hurbilagotik aztertzeraz Safer-aren eskumenak, aktualitatea egin duten adibide konkretu batzuekin ilustratuz dituen mugak eta ezinak.

ESPEKULAZIOA EZ DADIN PREZIOEN FINKATZEKO ERREFERENTZIA BILAKA

Lehentasunez erosteko eskubidearen helburua da lurrak laborantzarako atxikitzea. Horretarako baldintzen artean da Safer-ak bertan kokatzeko laborari hautagai bat ukaitea eta horretan da garrantzitsua ELB sindikatuak eta Lurzaindia fundazioak egin lana, etxalde eta lurrik gabekoen instalatzeko baliatu dezaketelako aukera. 2022. urtean 53 kasuetan erabili zuen eskubidea departamentu mailan (gehienak Euskal Herrian), eta hiru aparte beste guztiak prezio espekulatioa deuseztatzeko izan ziren. Demagun, iaz Urruñan ezeztatu zuten 1.070 metro koadro 80.000 eurotan saltzeko xedea. Baina ez pentsa hori kostaldeko arazoa denik bakarrik: Ortzainen ere salgai ziztuzten 118.000 eurotan 25.000 eurotan baloraturiko 7,3 hektarea lur beraien bastizarekin.

Gaur egun 7.250 eurotan da hektarea (bastizarik gabekoa), baina ezerk ez ditu salmentak hein horretara mugatzen. Funtsean, Safer-a ez baldin bada artean, ezerk ez du eroslea behartzen laborantza aktibitatea bermatzera. “Biziki garrantzitsuztat” du prezioen berrikusteko bidea

“Erran nezake hautetsi
gehienak kontziente
direla arazoaz,
baina uste dutela ez
dezaketela ezer egin”

ERIC PENACQ

Lurzaindiako Maryse Cachenautek, prezio ikaragarri horiek bideratuko balira, erreferentziatzeko prezioa igoko litzatekeelako... goiz ala berant espekulazioak finkatuz erreferentzia.

Zehazki, prezioaren berrikusteko lehentasunez erosteko eskubidea bideratzerakoan jabeak hiru aukera ditu: Safer-ak proposaturiko prezioa onartzea –baina pentsatu dezakegun bezala, horretarako interesik ez du eta ez da kasik sekula gertatzen–; ondasuna salmentatik kentzea; edo epaitegira jotzea prezioa epaileak finkatzeko gisan –hori ere ez da maiz gertatzen–. Hori horrela, gehiene-

tan transakzioak ezeztatuak dira, eta ez bada ere garaipen oso bat –azkenean, lur horiek landu gabeak gelditu daitezkeelako ondoko saltzera arte–, espekulazioa mugatzeko balio du, eta ez da guti.

Hala ere, Pirinio Atlantikoetako Safer-eko zuzendari Eric Penacqek ondokoa zehaztu nahi izan dio ARGIAri: “Maiz murrizten dugu Safer-aren eginkizuna lehentasunez erosteko eskubidera, baina horiek esku hartzeen %20 dira, beste %80etan jabeak bere baitarik uzten du salmenta Safer-aren esku”.

2014an doi bat aldatu zuten legedia, preempzio-aukera zabalduz. Ordura arte, ondasunak bere osotasunean behar zuten laborantzara bideratua izan (demagun, etxeak ez bazuen azken bost urteetan laborantza-aktibitatearik, orduan ezin zuten salerostean esku hartu eta horrela galtzen ziren lur anitz). 2014az geroztik, haatik, laborantzarako lurrak eraikinetik bereizi daitezke eta lehentasunez lurren erosteko aukera baliatu dezake Safer-ak. Arbonako Berruetako kasuan hori gertatu zen, baina jabeak ez zuen Safer-aren proposamena onartu. Jabeak finkaturiko 3,14 milioi euroko prezioan erostea zen Safer-ak zuen aukera bakarra. Finantziarioki eta politikoki “ezinezkoa” Penacqen



MARIENIA, KANBON Laborantza lurrak eraikigarri bihurtzea ere da kezka iturri, gehienbat kostaldean eta gune urbanizatueta.

arabera, diru hori ez ukateaz gain, espekulazioaren logikan sartzea litzatekeelako. Urte bat geroago, lau hektareak eta bastizak saltzerakoan, bide bera aktibatu zuen Safer-ak, baina gauza bera iharduki zion jabeak. Hor dugu, beraz, muga: jabeak du azken hitza.

“Legalki kasu guzietan ezin dugu esku hartu. Erran nezake bastizarik gabeko ondasunen kasuan ez dela arazorik eta eskubide hori bideratu dezakegula beti; mugatua gara ondasunean bastiza ere badenean... kasu batzuetan ezin dezakegu ezer egin”, dio Penacqek, legea moldatzeko beharra azpimarratuz.

Lehenik eta behin, bastizak laborantza-funtzioa ukan behar du eta hori salmenta aitzineko bost urteetan. Hau da, duela sei urte gelditu bazuten laborantza-aktibitatea, orduan, Safer-ak ez dezake ezer egin. Horregatik, Arbonako Berruetako etxeari buruz ezin izan zuten neurrizko prezioan erosteko bidea proposatu. Muga hori problematikoa dela dio Lurzaindiako Cachenautek ere, ondasun anitz horrela galtzen dituelako Ipar Euskal Herriko laborantzak.

Baina ez da horregatik bide hori ez dela erabiltzen. Funtsean, Safer-aren eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean berriki izenpeturiko hitzarmenari segi, logika espekulatuzaile batean bideraturiko transakzio guzietan baliatuko dute prezioa berrikusteko preempzio eskubidea, eta elkargoa “berme” kokatuko da sistematikoki. Urrats inportantea dela dio Penacqek: “Euskal Hirigune Elkargoak lurraldearen alde eragiteko duen borondate politikoa erakusten digu hitzarmen horrek”.

Muga anitz bistaratu zizkigun Arbonako kasuak, tartean, azkenaldi hauetan Safer-aren eskumena saihesteko espekulatuzaileak baliatzen dabiltzan ondoko hutsune juridikoa:

ARBONA, BIDARRAI: JUKUTRIAK, BAINA LEGALAK

Urte hastapenean genuen jukutria horren berri ukan, beste behin ere Lurzaindia eta ELBK egindako zainketa lan serioari esker. Bidarrain, jabe batek hamasei hektarea lur saltzen zizkion Frantziako asurantzaren artean bati 90.000 eurotan, baina salmentaren ondotik jabetza soila baizik ez luke eskuratuko erosleak –lurren gozamenik gabe-. Zer-gatik? Bi zatitan salduz legaltasun osoz saihesten duelako Safer-aren lehentasunez erosteko eskubidea. *Mediabask*-ek hitz egin zuen eroslearekin eta mespre-



Safer-arekin harremana gatazkatsua izan zuen ELBK hastapenean. Horren adibide, Kako Afera, 2008an.

“Elikadura autonomiatik urrun da Euskal Herria, horregatik erronka nagusia bihurtu behar zaigu lurren babesa”

MARYSE CACHENAUT

txu tonuari trufarena ere sendi zitzaion: “Bera ere laborari semea zela” eta gozamina noizpait eskuratzeko xedea ez zuela gordetzen, noizpait bere haurrek bertan laborari bihurtzeko... Anartean, bera ez da laborari, asurantzaren artekari aberatsa da eta nahitara bideraturik du diru zama hori, laborari izan nahi lukeen orori proposatzea ezinezkoa zaiona.

Gogorki salatzen du bide hori Lurzaindiak: “Elikagaiantzat nahi dugun lurraren defendatzaile gisa salatzen ditugu laborari ez diren lur jabetze horiek, elikagarri izateko bokazioa galtzen dituelako. Elikadura autonomiatik urrun dugu Euskal Herria eta laborantza lurren babesa erronka nagusia bihurtu behar zaigu. Hori horrela, lur eroste horiek bertan behera uztea galdetzen diegu”. Muntaiak juridiko hori “ez da onargarria”, Safer-eko zuzendariaren ikuspegitik ere.

Hori horrela, legea moldatzeko beharra ikusten dute laborantza arloko eragile gehienek eta zentzu horretara doa Vincent Bru eta Jean-Bernard Sempastous diputatuek iaz aurkezturiko lege-proposamena. Testu horrek dakar, batetik, laborantzak duen “interesa orokorrerako izaeraren” aitorpena eta, bestetik, Safer-aren lehentasunez erosteko eskubidearen zabalpena. “Zulo juridikoak” estaltzeko asmoz osaturikoa da, landa-zuzenbidean puntako aditua den Stephanie De Los Angelesen laguntzarekin. “Guztatzat proposamen baikorrek dira. Ez du dena konponduko, baina hobekuntza bat da hala ere”, dio Lurzaindiako Cachenautek. Gaur egun bide legegile horri buruzko informaziorik ez dute, eta dioenez, “presioa egitea inportantea da” lege hori behin betiko bozkatua izan dadin.

MARIENIA: HIRIGINTZAREN GOSEA

Hastapenean jarritako zenbakiari ere begiratu behar diogu: 600 hektarea laborantza lur dira desagertzen urtero Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan. Lurren artifizializazio horri dagokionez, herriko etxe zein Euskal Hirigune Elkargoak arduratzen dute. Lurren desagerpen horretaz hautetsiak kontziente ote diren galdetuz gero, ondokoa dio Cachenautek: “Batzuk bai eta laborantza eremuen jatea ttipitzen dute. Baina, nahikeria da ala legegaren aplikazioa? Ez dakit. Mobilizazioa eta gure tresnak beharrezkoak ditugu, baina hala ere, lurraren inguruko afertan legea behar dugu gure alde”.



Laborantza lurrak berenganatuz, lasaitasuna ere erosi nahi izaten dute aberatsek.

JENOFA BERHOKORIGOIN

Tokiko Hirigintza Plana dokumentua eta mapa komunalak dira herriek dituzten kartografiak, zeinetan artifisializazioetik babesturik diren laborantza lurrak. Baina tresna interesgarri gehiago ere bada, iazko urte bukaeran Euskal Hirigune Elkargoak hautetsien esku utzitako *Laborantza lur-funtsetan eragitea: lur-funtsetarako tresnak* gida-liburuan agergai diren bezala. Safer-eko zuzendari Penacqi ere galdetu diogu herriko etxeen kontzientzia heinaz, baina ez du bere iritzia eman nahi ukan: “Zinez ez dagokit hautetsien lana epaitzea. Baina argi da Ipar Euskal Herria lurralde konplexua dela eta problematika ezberdinak direla barnealdean eta kostaldean. Erran neza ke gaiak kontziente direla, baina hautetsi anitzek ez dituztela ezagutzen laborantza lurrak zaintzeko eta etxaldeen segida bideratzeko tresnak. Hautetsi gehienak kontziente dira, baina uste dute ez deza ketela ezer egin”. Hori horrela bada, bere funtzioa ukanen du elkargoaren gida-liburuak.

Kartografiaren moldaketak ekar dezake laborantzara bideraturiko lurrak eraikigarri bihurtzea. Batez ere biztanleriaren emendioa aurreikusten delako eta elkargoak bozkaturiko Bizilekuen Tokiko Programak urtero 2.686 etxebizitza eraikitzeke engaiamendua dakarrelako eta hori 2026a arte.

Fenomeno horren erakusleihu dugu Kanboko Marienia eremua: 3,7 hektarea lur eskuratu ditu Bouygues Immobilier enpresa potoloak 94 etxebizitza egiteko.

Laborantzarako bokazioa galdurik dute kartografia berrian, baina horrelakorik ez dute onartzen ELB, Lurzaindia zein Marienia Ez Hunki kolektiboak: “Marieneko lurrak biziki onak dira laborantzarako, baina artifisializatu ondoan ez dira gehiago emankorrak izanen”. Afera auzitegian da, justiziaren bidetik ere egitasmoa geldiarazteko asmoz.

“EZ AHANTZI NONDIK GATOZEN”

Urtetan zehar ELBren inguruan ibilitakoek badakite sindikatu horrek ez duela beti bidea erraza ukan, etxaldeen eta laborantza lurren aldeko borrokan ez duela beti hain sostengu zabala jaso eta Safer-arekin gaur egun duen elkarlana ez dela beti posible izan. Hasteko, ez zitzaiolako lekuri bideratzen egituraren batzar teknikoan. Gune horretan diren eragileak –sindikatuak, bankuak, mutualitateak eta kolektibitateen ordezkariak– dabilta transakzioak aztertzen, preempzio eskubidearen aktibazioaz eztabaidatzen eta hautagaitza bat baino gehiago denean erabakitzen zeini bideratuko zaion ondasuna. Hots, erabaki gune garrantzitsua da, eta gaur egun ELBk ere ordezkaria baldin badu, ez da beti horrela izan. Horren lekuko dugu Kako Afera: GFA Lurra-k –Lurzaindiaren helburu berarekin arituriko egitura, eta 2013an Lurzaindia bihurturikoa– Ainharbe herriko Kako baserria Jasmine eta Fredo Larragnaga lurrik gabeko laborarientzat nahi zuen (Fredo jadanik zebilen bertan lanean, zendu berri zen

horko laboraria ordezkaturik eta alarguna lagunduz), baina parean kausitu zituen Safer-aren batzar tekniko eta horren gidari Fdsea sindikatua. Bostek bozkatu zuten GFAREN hautagaitzaren alde, baina seik bestearen alde. Bortitza izan zen borroka, mobilizazioak egon ziren, eta horietan atxilotuak, epaituak eta kolpatuak. Baina elkartasuna handiagoa izan zuten eta, azkenean, etxaldea Fredo eta Jasminei bideratzea onartu zuen jabeak: lurrak erosi zituen GFAk –herritarrek 63 euroko 2.500 akzio erosirik– eta etxea Bizitegia elkarrekin –herritarren elkartasunari esker jasotako 250.000 eurori esker–. Hortik gutxira lortuko zuen ELBk Safer-aren baitan lekua, espekulazioaren kontrako eta laborarien instalazioaren aldeko borroka barnetik eramateko bidea irekiz.

Batzar tekniko horretan gaur egun ere gutiengoan direla dio ELBko kide ere den Cachenautek. Baina ez dute oztupo: “Behar da ari izan, eta izan, existitzen zarelarik parekoak ez duelako ez bazina bezala egiten ahal”.

ELBk eta GFA Lurra-k/Lurzaindiak egindakoaz ondorio hori ateratzen du Cachenautek: “Hor gara, eta behar da doi bat harro izan gure buruaz. Denek biziki fite ahanzten dute nondik heldu giren, denek dute “Arbonako afera” aipatzen, baina ELB eta Lurzaindia izendatzea ahanzten dute beti... Oroitarazi behar da nondik heldu diren lorpenak”. Borroka sozial orotan bezala, garaipenak ez direlako sekula zerutik erortzen. ●

ISABELLE PARGADE

EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO PRESIDENTEORDEA

“Nahiago nuke laborari gehiago,
herritar gehiago baino,
baina nola egiten da hori?”



Euskal Hirigune Elkargoan elikadura eta laborantzaren ardura du Isabelle Pargadek. Laborantza lurren desagerpenari buruz galdetu dio ARGIAk, eta lehen sektorearen funtsa guzian plateretan ageri denez, elikadura burujabetzaz hitz egiten bukatu dugu.



2015 eta 2018 artean 2.450 hektarea laborantza lur ziren desagertu Ipar Euskal Herrian, eta urtero 600 hektarea ditugu galtzen. Zein da datu horri buruzko zure sentipena?

Biziki erakargarria den lurralde batean bizi gara eta biztanleria emendatuz doa. Horrek dakar etxebizitza eskaeraren emendatzea eta aktibitate ekonomikoaren beharra. Horri gehitu behar zaio baserri batzuk segidarik gabe direla ere. Bi fenomeno horiek dakarte laborantza lurren desagertzea.

Erakargarria da bai, eta aberatsak ere datoz, espekulatuz lurrak eta etxeak berenganatzera.

Logika espekulatzaila hor da eta hori horrela, batzuek nahiago dute laborantza lurra atxiki hirigintzako dokumentuan "eraikigarri" sailkatua izan arte, orduan saltzeko eta diru sarrera ahal bezain handia errezibitzeko. Fenomeno hori badugu kostaldetik hurbil diren eremuetan -Hazparne lurraldea, Errobi aldea-. PLU Urbanizaziorako Tokiko Plana deitu kartografiak ditu laborantza lurrak babesten, eta has tapenean laborantza lurra babesteko izan behar zena orain beste aldera doa: dirudun batzuek etxea erosten dute, laborantza lurrez inguratua, auzorik gabe, hots, bakea erosten dute. Arbonako kasua mediatizatua izan zen, baina gisa horretakoak andana ditugu Euskal Herrian.

Safer-aren eta Euskal Hirigune Elkargoaren artean hitzarmen bat izenpetu duzue: lurrak gehiegizko prezioan salduko direnaldi oro lehentasunez erosteko prozedura bideratuko du Safer-ak eta elkargoa berme izanen du.

Prezioen berrikusketa egiten denean, jabeak hiru hautu ditu: edo salmentatik kentzen du ez duelako Safer-ak proposatu prezioa onartzen, edo onartzen du, edo auzitegira doa prezioa finkarazteko. Epaileak zer egingen du? Lurraldean izandako saltze guziei begiratzen die eta horren arabera finkatzen du. Beraz, erreferentzia horiek kontrolatzea eta prezioak moralizatzea da erabaki politiko horren helburua, hori gabe goratuz doazelako. Elkargoa berme izanen du Safer-ak, beraz epaileak erabaki prezioa Safer-arena baino gorago denean, Safer-ak

erosi beharko du eta, kasuan kasu, hor izanen gara ondasuna ardiesteko.

Horrek aurrekontu bat eta transakzioen jarraipena galdetzen du.

Aitzinatu arau zehaztuko da hori. Baina, Safer-ak du egunerokoan segipena egiten eta lehentasunez erosteko eskubidea bideratzen. Orain arte Lurzaindiak egiten zuen segipen hori, sekulako funtzioa du laborantza lurren zaintzearen alorrean. Gure eskuetan hartuko dugu gaia, eta herritar kolektibo horren ondoan egonen gara gu ere, kolektibitate gisa.

Arbonako kasuak legediaren mugak erakutsi zizkigun eta hortik idatzi dute lege-proposamena bi diputatuk, Safer-aren eskumenak zabaltzeko eta laborantza interes orokor gisa sailkatzeko. Zertan da bide hori?

Ez dakit noiz pasako den legebiltzarretik, bide legegilea konplexua delako. Dakidana da aurkeztu zutela lege-proposamena eta nahiko baikorki jasoa izan zela.

"Nola bermatu oreka etxebizitzak eraikitzearen, laborantza lurrak atxikitzearen eta aktibitate ekonomikoa sortzearen artean?"



Hautetsiak arazoaz kontziente direla erranen zenuke? Laborantza lurrak babesteko tresnak ezagutzen dituzte?

Ez ditugu tresna guziak menperatzen eta horregatik bideratu berri diegu dokumentu bat, guziak aurkeztuz. Gehien ezagutzen duguna da Urbanizaziorako Tokiko Plana, baina ez da tresna bakarra. Herriko etxeok ez dugu laborantza lurra lehentasunez erosteko eskubiderik. Beraz, laborantza egitasmo bat garatu nahi izanez gero, zein ditugu alokairu-kontratu ezberdinak? Zein hitzarmen pasa dezakegu Safer-arekin? Nola berreskuratu ditzakegu aspaldian erabili gabeko ondasun hutsak?



Elkargoaren Etxebizitzarako Tokiko Planan agertzen da 2026 arte urtero 2.686 etxebizitza eraikiko direla Ipar Euskal Herrian. Gutxi ala anitz, laborantza lurren artifizializazioa ekarriko du horrek. Kontziente gara neurrian aritu behar garela, beraz lehentasunetan ditugu badena konpontzea, herri zentroa dentsifikatzea eta etxe hutsak berritzea. Baina hori ez doa zailtasunik gabe: pribatuek ez baldin badute saldu nahi, edo elkarren artean haserre diren senideen artean banatua baldin bada ondasuna, edo jabea urrun bizi bada.... zinez konplikatu izan daiteke eta konbentzitzeko bide guti ditugu. Gaitzeko arazoa da etxe hutsena, eta hala ere, badakigu ez direla nahikoak etxebizitza behar guziak bermatzeko.

Marienia arazo baten sinbolo dugu: laborantza lur ederrak desagertzen dira, hirigintzara bideratzen direlako. Elikadura burujabetza helburutzat harturik, Lurralderako Elikadura Egitasmoa bidean du elkargoak. Zer diozu Marieniako aferaz?



Hori da asmatu beharreko ekuazioa: nola bermatu oreka etxebizitzak eraikitzearen, laborantza lurra atxikitzearen eta aktibitate ekonomikoa sortzearen artean? Aktibitate ekonomikoa beharrezkoa dugu lurralde osoan, hori gabe herrien heriotza eta *ohetoki-hirien* garapena dugulako. Kostaldearen eta barnealdearen artean diren auto-ilarak ezinezkoak dira. Beraz, hori dugu erronka eta Marienia kasuak hori azaleratzen du. Nik herrien identitateari begiratzen diot: Kanbo Hazparne bezalatsu da biztanleriaren aldetik eta kokapenaren aldetik, baina ez dugu batera identitate bera: Kanbon osasunak leku handia du, Hazparden laborantza identitate badugu, oraindik 114 etxalde ditugu. Aldrebes aritu gara gu, lur batzuk berriz laborantzara bideratu ditugu. Badirudi Kanbok beste aldera egin nahi duela. Etxebizitza behararen eta laborantza lurren babesaren arteko talka badugu, eta biok gabiltza 130.000 euroko isuna pagatzen urtero, ez dugulako etxebizitza sozial nahikorik. Biziki konplexua da. Baina bai, Marieniako lurrrak biziki-biziki ederrak dira. Herriko etxearen esku da afera, elkargoak ez du eskua sartu.

“Batzuek nahiago dute laborantza lurra atxiki “eraikigarri” sailkatua izan arte, orduan saldu eta diru-sarrera ahal bezain handia egiteko”



Baina ez ote duzue eskua sartu behar ikusiz elkargoak elikaduraz eta laborantzaz duen gogoeta?

Eztabaida potoloa da. Nik diot, eta denok ez dugu iritzi bera, herriaren garapena oso estrategikoa dela eta auzapezaren eskumena izan behar duela. Hazpandarrei erran nien urbanizazio gehiegi bazela eta mezu horrekin naute auzapez hautatu. Orain batzuek erraten didate etxebizitzak eraiki behar ditudala, hiru urtez 555 etxebizitza sozial eraiki behar ditudala; kostako hautetsi batzuek leporatzen didate nahiko ez gitea. Baina ez! Nola onartu deza-

ket Hazparnekoa ez den hautetsi batek laborantza lur bat hartzea etxebizitzak eraikitzeo? Ez nuke jasanen, eta Kanbokoari prisma beretik begiratzen diot. Bai, logika komunitarioa bada eta behar da, lurralde mailan gogoetatu behar da. Kolektiboki erabakiko dugu, baina bakoitzaren identitateak eta auzapez bakoitzak bere herriarentzako duen garapen ikuspegitik. Etxebizitzak laborantza lurretan eraikitzea inposatzea gaizki hartuko nuke, beraz, ez naiz ikusten erraten besteei zer egin behar duten. Ikusten duzu erran nahi dudana? Auzapez gisa, gure herriari buruzko ikuspegia da gure motorra, hori dugu hautesleekin partekatzen. Hori kenduz gero, zergatik izanen ginateke auzapez?

Azkenean, erronkari nondik begiratzen zaion. Kokapena ez da “Ipar Euskal Herrirako edo nire herrirako elikadura autonomia bermatzeko N hektarea behar ditut, beraz hori horrela, nola bideratuko dut etxebizitza politika?”. Erabat bestelakoa litzateke egoera, norabide horretatik gogoetatuko bagenu...

Ulertzen dut erraten duzuna, baina maleruski ez dugu horrela pentsatu. Gogoeta hori behar genuke, baina bururaino eramanez: zenbat laborari behar ditugu? Zer eta norentzat ekoizteko? Ekoizten dugun haragiaren %85 esportatua da eta horrek galdekaten nau: elikadura burujabetzaz hitz egiten dugu, baina zergatik? Elikadura burujabetza ez da bakarrik lurren kalkuluan jokutzen. Elkargoarekin ikerketa bat daramagu, EHLGarekin elkarlanean, 2050eko panorama marrazteko: zenbat izanen gara 2050ean? Nolakoa izanen da klima? Zer nolako platera beharko dugu? Beraz, zenbat lur eta laborari beharko ditugu? Gutxienez 11.000 laborari beharko ditugu. Urrun gaude. Nik ere nahiago nuke laborari gehiago, herritar gehiago baino, baina nola egiten da hori?

Batez ere ikusiz nolakoa datorren geroa. Bai ala bai birlokalizatu beharko dugu ekoizpena eta kontsumoa.



Birlokalizatu beharko dugu, baina sekulako lana da hori, ez da simple. Bat, lurrrak behar dira, bi, laborariak behar dira, eta hiru, lekuko eskaerari erantzun behar zaio. ●

“”

*Herri indigenentzat
Boluarte ez da presidentea,
usurpatzailea da*

Lourdes Huanca

Lourdes Huanca ekintzaile feminista eta nekazari perutarra Europan ibili da azken hilabeteetan, egoera salatzeko asmotan. Peruk Espainiako Estatuan duen enbaxadak komunikatu ofizial batean adierazi du Huanca gezurretan dabilela, eta ohartarazi egin gaitu hedabideok kontuz ibiltzeko berak esandakoekin. Huanca Peruko Emakume Nekazari, Artisau, Indigena, Natibo eta Soldatapekoen Federazioko lehendakaria da, eta berarekin izan gara Gasteizen.

 JON HIDALGO  DOSPORDOS



Pedro Castillok urte eta erdi eman zuen Peruko presidente gisa. Abenduaren 7an kongresua desegin zuen, salbuespenezko gobernu ezarri eta batzar konstituziogilea iragarri. Eguna amaitzerako atxilotuta zegoen eta Dina Boluarte izendatu zuten gobernuburu. Orduetik protesta ugari egon dira Perun Boluarteren dimisioa eskatzeko eta batzar konstituziogile baten alde. Errepresio bortitza jasan dute mobilizazioek, 70 hildakotik gora eta milaka zauritu izateraino.

Elkarrizketa hau Peruko enbaxadaren iritziaren aurka egiten ari gara. Kezkatuta daude ea zer esango diguzun?

Eskuina beti kezkatuko da norbait egia kontatzen ari bada. Baina egiarekin nabiltenez lasai nago, ezer zor ez duenak ez du beldurrik izan behar. Jatorrizko herrien izenean hitz egiten dut nik. Gure borroka ez zen abenduaren 7an hasi, Castillo presidente izendatu zutenean baizik. Orduan hasi baitziren bere aurkako tratu txarrak, probintziakoa delako, nekazaria, ekoizlea, eta hasieratik jasan du indigenen aurkako arrazakeria.

2021eko uztailean hasi zen borroka. Botere legegilea hainbat artikulu eta lege ateratzen aritu da orduetik, Castillo kargutik kentzea lortu nahian. Botere judiziala, legegilea, prentsa saldua, denak zeuden bere aurka. Ezgai deitu zioten, ezjakina... baina ez ziren konturatzen Pedro Castillori botatako irain bakoitza guri ere esaten ari zirela, eta zauria handitzen joan da horrekin.

Zer gertatu zen abenduaren 7an?

Pedro Castillok berak azalduko digu arrerago egun hura, jaso zituen presioak eta bere arrazoiak. Baina kargutik kendu eta berehala giltzaperatu zuten. Horretarako prozesuak egon behar dira tartean, eta ez zen hala izan.

Meatzaritza eta petrolioaren interesak nahasten dira hemen. 30 urteren ondoren, Fujimorik gure aberastasun guztia enpresa handiei oparitu eta gero, aurten berrikusi behar dira ustiapenerako baimenak. Beraz, ulertuko duzu zergatik daukaten giltzaperatua gure presidentea.

Zergatik zaudete kalean protestan?

Eskakizun politiko bat da gurea. Boluarteren dimisioa nahi dugu. Herri indigenentzat bera ez da presidentea. Usurpatzailea da, bere hitza jan duena, gainera. Aspaldi-

tik ikusten genuen Castillo kargutik kentzen saiatzen ari zirela, eta Boluarteri askotan galdetu genion ea zer egingo zuen hori gertatzekotan, bera lehendakariorde izanda. Esaten zuen herriaren alboan egongo zela, ez zuela kargua hartuko, batera borrokatuko ginela. Traizio egin dio herriari, kargua onartu zuen. AEBetako enbaxadorearekin eseri zen, eta larrialdi egoera ezarri zuen. Gaur egun, gobernu militarra daukagu Perun, eta gure anaia-arrebak masakratzen ari dira. Sarraskia izan da.

Bost aldarrikapen dauzkagu. Boluarteren dimisioa, askatasuna Pedro Castillorentzat, kongresu hau ixtea, justizia gure 72 heroientzat eta batzar konsti-

“ ”

“Fujimorik gure aberastasun guztia enpresa handiei oparitu eta gero, aurten berrikusi behar dira ustiapenerako baimenak. Beraz, ulertuko duzu zergatik daukaten giltzaperatua gure presidentea”

tuziogilea ezartzea, plurinazionala eta parekidea. Ez ditugu hauteskundeak eskatzen, askatasuna eskatzen dugu. Guk badaukagu jadanik gure presidentea, demokratikoki hautatua.

Enbaxadatik diote Boluarterek bakea eta elkarrizketarako deia egun duela, ustelkeriaren eta desgobnuaren aurka ari dela. Zer bilatzen du zuen ustez?

Ustelkeriaz hitz egin dezagun. Castilloren proposamena zen enpresa guztiek zergak ordaindu behar zituztela, eta diru hori jatorrizko herrien artean banatzea zen, eskolak eraikitzeak, adibidez. Gaur egun, zergarik ez ordaintzeko ateratzen dituzte legeak, legegileen txalo artean. Ni gezurretan ari banaiz, nondik atera dira 72 hildako hauek? Zergatik dago armada osoa Punoko eskualdean, ez bada litioa zaintzeko, urre zuria batesteko?

Batzar konstituziogile bat nahi dugu, esan ahal izateko zer nahi dugun gure herriarentzat. Nahikoa da! Indigenen 200 urteko borroka eta Fujimoriren 30 urteko herentzia kapitalista sufritzen ari gara. Herri indigenak nekatuta gaude sostengu izateaz, gu garelako herrialdea elikatzen dugunak, gu gara goiz esnatzen garenak landareak ureztatzera edo animaliak zaintzera, mahai guztietan janaria egon dadin. Batzar berri honetan ez dugu soilik nahi gure eskubideak errespetatu daitezen gizaki gisa, gure kultura errespetatu dezaten baizik. Pachamama, amalurra, errespetatu dezatela, ez baita merkantzia bat.



MARTIN MEJIA / AP



Zer izan da Pedro Castillo zuentzat? Itxaropena zabaldu zuen?

Nostalgia handia sortzen dit gogoratzek nola egon ginen 500 ahizpa presidentearen jauregian. Aukera eman zigun ministroekin batera esertzeko, entzunak izateko.

Ama baten nahia zein da? Bere seme-alabek ikastea. Ez dezatela soilik dirudunek ikasi, eta hala eskatu genion Castillori. Presidenteak esan zigun unibertsitaterako sarbidea doako egingo zuela. Eta zer egin zuen botere legegileak? Proposamena artxibatu. Bigarren nekazaritza-erreforma ere eskatu genuen, emakume aurpegia izan behar zuena. Eta presidenteak 30 milioi proposatu zituen, emakumeen artean banatzeko. Ez da asko, baina emakume nekazariak inoiz ez dute aukera izan halako baliabideak izateko. Ez zen ona eskuinarentzat. Hori litzateke jatorrizko herriei banatzea eskuinaren aberastasuna, eta haiena dela uste dute. Ekimen hori ere ez zen aurrera atera. Indigenen aldeko 74 proposamen bota zituzten atzera, denak artxibatuta.

Eskualde guztiek eskatzen zioten presidenteari kongresua ixteko, batzar konstituziogile bat abiatzeko. Nola ez dugu esperantzarik izango halako pre-

“ ”

“Ez ziren konturatzen Pedro Castillori botatako irain bakoitza guri ere esaten ari zirela”

sidente batengan, eskualdeetara joan dena, entzun gaituena?

Eta zer izan da Castillo kongresuarentzat? Zer moduz hartu zuten presidentetzara heltzea halako profileko pertsona?

Traba izan da kongresuarentzat, harri bat zapata barruan. Presidente beti batzen zen gizarte mugimenduekin, eta enprekin biltzen zenean ere argia zen bere jarrera: ez zigula traiziorik egingo. Ezkerreko kongresukide asko, Castilloren alderdikoak barne, bera kanporatzearen alde agertu zen. Bakarririk zegoen presidentea, herri mugimenduekin. Kongresuak ez du egin bera botatzen saiatzeko besterik. Castillok bere ministroak hautatzen zituen, eta

kongresuak kendu, banan-banan. Irain asko jasan dugu kongresutik. Heldu dira esatera Tawantinsuyu-a, gure bandera, jate txar bateko mahai-oihala zela, horrela gutxiesten dute haien herria.

Aurten berrikusi behar ziren meatzaren eta petrolioaren ustiapen baimenak. Faktore garrantzitsua izan da hau?

Nire aberriaren jabeak, oraintxe bertan, bost edo sei familia aberats dira. Azken 30 urtean, haiek izan dira erabakiak hartu dituztenak, aberastu direnak. Meatzaritza enpresak dauden zonaldeak muturreko pobrezian daude, non dago ateratzen den aberastasuna? Enpresa bat hemen badabil lanean, irabazien %80 Perun gelditu beharko litzateke, gure aberastasun materiala ari direlako ateratzen. Baina hain eskuzabala izan denez Fujimori, %80 eraman dezakete eta %20 utzi. Eta gainera ez dute uzten, horren zergak ere ez dituzte ordaintzen.

Esaten dute nekazariok ez dakigula pentsatzen, baina konturatzen gara ez daukagula erreperiderik, eskolarik, ur edangarririk, ospitalerik... Nekatuta gaude hainbeste kolpe jasotzeaz. Aski da. Uste dute etxera joango garela 72 kide hil



dizkigutenean? Ez, borroka egingo dugu. Heriotza mehatxuak egin dizkigute, baina ez dugu beldurrik. Isiltzen bagara, hemendik hamar urtera gure seme-alabak hilko dituzte. Mila aldiz nahiago dut neuk hil, haiek baino. Baina borrokan hilko naiz, ez belauniko eta ez arrastaka, zutik. Haziak bota ditugu, hazi autoktono kreoleak gara. Hilko gaituzte, baina haziak ernatuko dira udaberrian, eta borrokan jarraituko dugu.

Protestak gutxitu egin omen dira, errepide mozketak gutxiago dago orain. Indarra galtzen ari da mugimendua? Zer uste duzu gertatuko dela?

Ulerkorrak eta ulergarriak gara. Jendeak elikagaiz bete behar du biltegia, arnasa hartu. Gure kideak euren lurretara itzuli dira, patatari eta kinoari lurra ematera, orain dagokion bezala. Baina itzuliko gara, ez diogu bizitza erraz utziko Dina Boluarteri. Amestu nahi badute nekatuta gaudela, segi dezatela ametsetan. Lima bigarrenez hartzeko aldia badator, beste itzuli bat. Guk ere baditugu geure estrategiak, herri indigenetakook. Lehenik jatekoa bermatzen dugu, sabela ondo bete, indartsu egon eta borrokan jarraitu.

“”

“Uste dute etxera joango garela 72 kide hil dizkigutenean? Ez, borrokatu egingo dugu”

Zer harreman dauka Boluarteke enpresa handiekin?

Uste duzu berak nahi duelako ari dela egiten hau guztia? Aberriarekiko maitasunez agindu duela hainbeste jende hiltzeko? Zenbat diru mugituko ote zen hor? Zenbat jasoko zuen Espainiako enbaxadoreak? Uste duzu dohainik egiten dutela? Zergatik ez dituzte erailketak aitortzen?

Niri eskaini zidaten Emakumearen ministro izatea. Baina norberak jakin behar du non kokatzen den, non dagoen beharra. Garai hartan, Castillori berari esan nion bezala, ez nengoen ahoan mozala jartzeko prest, ez nengoen protokoloetarako. Indarra kalean behar genuen, mobilizatu behar ginen kongresuak kanporatu egin nahi zue-

lako. Eta hori da egin duguna. Kongresu parean lo egin dugu, gure bozkak zaintzen. Nik hainbeste interes izango banu diruan, jadanik ministro izango nintzateke, baina ez. Niretzat lehenengoa norberarekiko errespetua eta leialtasuna dira.

Europar ari zara salaketa egiten, zer espero duzu nazioartetik?

Perun daukagun arazoa ez dago isolatuta Boliviako arazoetatik, Kolonbiatik, Ekuadorretik. Arazo geopolitikoa da. Eskuina ikaratuta dago. Haizea lagun dugu orain. Peru berreskuratu genuen, eta hor daude Mexiko, Kolonia, Brasil, Bolivia eta Argentina. Irudikatu dezakezu zelako potentzia? Uste duzu kasualitatea izan dela Pedro Castilloren atxiloketa? AEBei ez zaie komeni herrialdeak artikulatu eta batu daitezten. Ez diegu hainbeste beldur izan behar. Iristen badira, irits daitezela, baina zutik harrapa gaitzala.

Gure gurasoek, gure amonek, ametsak bordatzen erakutsi ziguten, ehuntzen, eta aliantza estrategikoak ehundu behar ditugu, bide luze hau hariltzeko. Atzo bertan eskatu zuten gobernutik Perura eraman behar nautela bueltan. Aurreraba, eraman nazatela. Zain naukate. ●

“ ”

“Erditzean, pertzepzio sentsorial eta emozionala anplifikatu egiten da, eta indarkeria, bertsiorik arinenean ere, traumatikoa izan daiteke”

Estitxu Fernandez

EAE n iaz onartutako Berdintasun Legeak indarkeria obstetrikoa jasotzen du jada, baina aipatzen harago, nola definitu eta nola aurre egin? Horiek zehazteko Legebiltzarrean egiten ari diren prozesuaren baitan hitz egin du Estitxu Fernandez psikologo perinatalak. “Normalizatuta dugu erditzea dela ez informatzea, behar ez den zesarea egitea, bakarrik erditzea... eta horregatik da indarkeria ikusezina”.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Indarkeria matxistaren barruan hainbat indarkeria identifikatzen ditu Berdintasun Legeak, tartean indarkeria obstetrikoa. “Kontua da lege honek indarkeria hauek izendatu bai, baina ez dituela definitzen, eta puntu horretan desadostastunak izan direnez, ponentzia planteatu da Legebiltzarrean, bertan erabakitzekeko definizio horiek”, kontatu digu Oihana Etxebarrieta EH Bilduko legebiltzarkideak, definizioetan sakontzeko jendea gonbidatzen ari baitira ponentziara eta Etxebarrietak berak gonbidatuta joan da Estitxu Fernandez Eusko Legebiltzarreko batzordera.

Definizioa hitzaldiaren hasieran bertan eman du psikologo perinatalak: zer da indarkeria obstetrikoa? Haurdun dauden, erditzen ari diren edo bularra ematen ari diren emakumeen jarraipen ginekobstetrikotan ematen diren praktika edo jarrera medikuak, ahoz nahiz ekin-

tez emakumeen eta haien umeen eskubideak, desirak, erabakiak, beharrak, emozioak edota duintasuna kontuan hartzen ez dituztenak. “Honekin ez dut inolaz ere esan nahi nahita eragindako indarkeria bat denik, ezta obstetriziako profesional guztiek eragiten dutenik ere; indarkeria instituzional bat da, onartzen oso zaila, profesionalak berak eragin eta aldi berean pairatzen duelako batetik, eta emakumearentzat oso zaila delako indarkeria hori jasan duela onartzea bestetik; horregatik da hain ikusezina”.

Hiru indarkeriaren emaitza da: indarkeria zuzena –pertsonei eragiten zaien indarkeria fisiko eta psikologikoa–, indarkeria kulturala, sinbolikoa –indarkeria obstetrikoa hori nolabait legitimatzen duen marko kulturala–, eta indarkeria estrukturala. Hiruetan esku hartu beharko litzateke, indarkeria obstetrikoiari aurre egiteko.

INDARKERIA FISIKO ETA PSIKOLOGIKOA

Indarkeria zuzen fisiko gisa identifikatu ditu Fernandezek gehiegizko medikalizazioa eta beharrezkoak ez diren mediku praktikak egitea: adibidez, beharrezkoa ez denean poltsa puskatzea, episiotomia sistematikoak egitea, zesarea egitea beharrezkoa ez denean, justifikaziorik gabe erditze bat abiatzea... “Gure gorputza patologizatzea da, prozesu naturala dena gaixotasun bihurtze”. Psikologo perinatalak ohartarazi du praktika zaharkituak ere erabiltzen direla hainbat ospitaletan: Kristeller-en maniobra, umea ateratzeko emakumearen tripa belaunarekin edo ukondoarekin zapaltzea, etzanda erditzea, emakumeari ez uztea jaten, edaten edota ohetik altxatzen, arrazoirik gabe ama eta umea bantzea –zesarearen ostean esaterako,



edo umea neonatologiara behatzera eramatean-. Ez artatzea ere bada indarkeria: mina arintzeko analgesiarik ez ematea, umea galdu eta akonpainamendurik ez egotea, edoskitzean laguntzarik ez izatea...

Indarkeria psikologikoa orokorrean abusuzko jokabide bat da eta informazioarekin du zerikusia: emakumeari informazioa ez ematea, parte hartzen ez uztea, emakumea deshumanizatzea... “Ez informatuta, autonomia printzipioa urratzen da”, dio Fernandezek: “Gertatu daiteke, zesarea bat egingo zaiola adierazi baina horrek zer esan nahi duen, nola sentituko den, prozesua zein izango den ez azaltzea; edo are, abisatu gabe esku-hartze bat egitea, episiotomia bat edo poltsa puskatzea kasu; baita zer egingo dioten azaldu eta emakumeak ezetz esanda ere, bere erabakia ez errespetatzea”. Indarkeria psikologikoaren barruan daude, halaber, konfidentzialtasuna, intimitatea eta pribatutasuna ez errespetatzea -gelan edozein sartzea-, eta tratu iraingarri eta umiliagarria ematea: gutxiespena, mespretxua, gurasokeria, mehatxatzea erditu dezan,

“ ”

Ospitaleetan ezkutuko protokolo bat dago, ez idatzia, eta sistema horrelakoa delako ematen dira indarkeria erabiltzen duten praktikak

errua emakumeari botatzea -“nahi zenuen erditze naturala, orain begira...”-.

“Ebidentzia zientifikoak aspalditik dio erditzea zenbat eta fisiologikoagoa izan, orduan eta onuragarriagoa dela emakumearentzat eta umearentzat; nazioarteko osasun erakunde nagusiek erditzea errespetatzeko gomendioak

eman dituzte azken urteetan; epigenetikak aurkikuntza pila bat egin ditu, esanez zein garrantzitsua den erditzea errespetatzea eta tratu ona ematea; eta ikerketen bidez badakigu autonomia eta erabaki ahalmena errespetatzea dela emakumea bere erditzetik asebeteta ateratzeko aldagai nagusietako bat”, azaldu du Fernandezek.

Gehitu du Osakidetza protokoloak eguneratuta daudela eta aipaturiko guztia kontuan hartzen dutela protokoloek, “baina ospitaleetan ezkutuko protokolo bat dago, ez idatzia, eta sistema horrelakoa delako ematen dira indarkeria erabiltzen duten praktikak. Emakume asko ari dira indarkeria obstetrikoa salatzen Euskal Herrian”.

INDARKERIA NORMALIZATUA

Indarkeria sinbolikoaz aritu da ondoren: normalizatuta dugun indarkeria bat da eta beraz ez dugu indarkeriatzat ere jotzen, “pentsatzen dugu emakumearen eta umearen beraren onerako beharrezkoa dela, eta emakumeak sentitzen dira behartuak obeditzera, ezer ez esatera eta ezer ez salatza. Normaliza-

tuta dugu erditzea dela ez informatzea, behar ez den zesarea egitea, bakarrik erditzea... eta horregatik da indarkeria ikusezina. Eta erditzea pasa eta gerora bai, entzuten diezu emakumeei esaten, 'nola iritsi nintzen horra, nola baimendu nuen hori guztia?'. Ba, oso zaila delako onartzea osasun sistemak min egin dezakeela, eta hori indarkeria sinbolikoa da: min egiten du, nahigabe, baina egiten du, eta ikusarazi behar dugu, hain justu praktika aldatu ahal izateko".

Egiturazko indarkeria aipatu du azkenik, indarkeria obstetrikoa orokortuta dagoen indarkeria den heinean, "ez baita isolatutako praxi txarra, osasun sistemaren egiturazko praktika baizik". Eta hala da lau faktorerengatik, besteak beste. Batetik, genero ikuspegia dago atzean: "Ikuspegi androzentrikoa da nagusi medikuntzan eta emakumeen gorputza gorputz akasduna da, ez da gai erditzeko; prozesu naturalak patologizatu edo gaixotasun bihurtzen ditugu; horrez gain erditzeari beldurra zaio, zerbait gaizki ateratzeari beldurra, eta beldur garenez sumisioa errazago onartzen dugu; eta gaur egun oraindik ere emakume batek zerbait eskatzen duenean, galdetzen duenean edo kezkatzen denean, enbarazu egiten du". Bestetik, osasunaren ikuspegi mekanizista nabarmendu du Fernandezek: "Teknikak eta protokoloek bihurtu dute erditzea zerbait oso mekanikoa, emakumeen gorputza makina bat da eta umea produktua". Hirugarrenik, ikuspegi produktiboa: horren erakusle da aste barruko erditzeen kopurua asteburuetakoa baino askoz handiagoa dela, berdin zesareena. Eta azkenik, klase eta arraza ikuspegia: "Baliabide gutxiko eta arrazializatutako emakumeek indarkeria obstetrikoko gehiago jasaten dute, ikerketen arabera".

ONDORIOAK PROFESIOALENGAN, EMAKUMEARENGAN ETA HAURRARENGAN

Profesionalak oso kuestionatuta sentitzen direla dio Fernandezek, "badirudielako indarkeriak esan nahi duela min egiteko borondatea dagoela, eta kasu honetan ez da hala, gehienetan ez dakite indarkeria denik ere, normalizatuta dute, emakumeek bezalaxe, eta ez diete erakutsi bestela jokatzeko. Gainera, osasun langile guztiak ez darabilte eta eskuhartze guztiak ez dira indarkeria obstetrikoa". Behin hori argituta, indarkeria

“ ”

Praktika zaharkituak erabiltzen dira hainbat ospitaletan: umea ateratzeko emakumearen tripa zapaltzea, emakumeari ez uztea ohetik altxatzen, arrazoirik gabe ama eta umea banantzea...

“ ”

Oraindik uste dugu umeak ez duela hau guztia sentitzen, ez dela jabetzen, eta justu aldrebes da, zenbat eta txikiago, orduan eta kalteberago

obstetrikorekin ondorioez mintzatu da. Hasteko, profesionalengan dituen ondorio psikologikoez: "Estres egoera handietan egoten dira ginekologo, emagin eta obstetrak, erditze ez errespetatuak eta traumatikoak ikusi behar dituztelako, urgentzia egoerak izaten direlako, galerak... eta gero ez da zaintzen profesional hauen osasun mentala. Ikerketek diote ginekologo, obstetra eta emaginek beste espezialitateko profesionalak baino aukera handiagoak dituztela gaixotasun psikologikoak izateko; oso inportantea da, hortaz, profesionalak zaintzea".

Emakumeengan zein ondorio ditu indarkeria honek? Ondorio fisikoak izan daitezke gernua eta kaka galtzea, alegia inkontinentzia, umetokia galtzea, odol isuriak, baginako min kronikoak, baginismoa, baginako giharrak uztartzea, orgasmoa galtzea, bakterioa eta gernu infekzioa, desioaren eta sexu jokabidearen alterazioa... Eta ondorio psikologi-

koen artean daude sufrimendua, beldurra, deskonexioa, bakardadea, babes falta, engainatuta sentitzea, objektu sentitzea, baita irainduak, gutxietsiak, behartuak, erridikulizatuak, bortxatuak ere, "eta hori batzuetan trauma bilakatu daiteke: ez du zertan esku-hartzearekin lotuta egon, baizik eta amak erditzearen bizipena nola hauteman duen, horrek definitzen du trauma obstetrikoa, eta oso subjektiboa da, zerikusia duena akonpainamendu faltarekin, zerbait izugarria gertatzen ari zaizun bitartean babes falta duzula sentitzearekin". Traumak gaixotasun larriak eragin ditzakeela gehitu du: estres larria, erdiondoko antsietatea eta depresioa, tokofobia, haurdunaldi eta erditzeari beldur irrazionala, estres postraumatikoa, amak umearekin izango duen harremanean eragina...

Bukatzeko, indarkeria obstetrikokoak umearengan dituen ondorioez aritu da. Ondorio fisikoak izan daitezke lepaustuak puskatzea, zesarea batean aurpegian zauria egitea, tresnen erabilerarekin buruan lesioak eragitea... eta psikologikoa berriz, sufrimendu emozionala. "Jaioberri batengan ikustea zaila da, baina neurozientziak dagoeneko frogatu du eta epe luzerako ondorioak izan ditzake gainera, haurraren nortasunaren eraikuntzan edota atxikimenduan".

NOLA PREBENITU?

Garbi du Fernandezek: eredu humanista baterantz joan behar dugu pixkanaka, eta horretarako hainbat pauso eman ditzakegu: hasteko, garai perinatala (haurdunaldia, erditzea eta erdiondoa) ulertzea garai zaugarri bat bezala, "urteak direlako badakigula erditzea uste baino prozesu konplexuagoa dela, prozesu psikologiko eta hormonal oso sakona, garuna aldatu egiten dela; erditzean, pertzepzio sensorial eta emozionala aplikatu egiten da eta indarkeria, bere bertsiorik arinenean ere, traumatikoa izan daiteke. Orain nire 47 urteekin ginekologora joan eta zakar tratatzen banau eta jende pila bat sartzen bada ni hantxe nagoen bitartean, atsegina ez izan arren, horrek ez dit traumarik sortuko, baina erditzen ari den emakume bati bai sor diezaioke, eta hori barneratzea funtsezkoa da, ulertzeko zergatik hartu behar den kontuan zaintza muturreraino".

Une zaugarria da, baita ere, umeak berak bizi duelako: "Oraindik uste dugu umeak ez duela hau guztia sentitzen,



EUSKO LEGEBILTZARRA

ez dela jabetzen, eta justu aldrebes da, zenbat eta txikiago, orduan eta kalteberago. Haurtzarora eta nerabezarora une zaurgarriak dira, eta horren barruan zaurgarriena 0-3 da". Profesionalentzako ere une zaurgarria dela gehitu du, aurretik azaldutako guztiagatik eta erditzeak emozioak mugitzeko gaitasun handia duelako.

Eta eredu humanistarantz egiteko beste gako garrantzitsu bat: umea eta emakumea subjektu direla ulertzea, eskubide guztiak dituzten subjektuak; "makinek eta teknologiek ematen duten informazioa baztertu gabe, baina beti dago gainetik errespetatzea emakumeen eta umeen desirak, pentsamenduak, emozioak eta beharrak. Eredu zientifikoak egiten du erditze fisiologikoaren alde, eta eredu humanista fisiologikotik harago doa, emakumearen alde egiten du".

ZER EGIN DAITEKE ERAKUNDEETATIK?

Berdintasun Legea bera betearaztea abiapuntu ona dela adierazi du psikologoak. Legeak hala dio: "Botere publikoek beren politika eta ekintzetan txertatuko dute, modu transbertsalean, indarkeria prebenitzeko, artatzeko eta desagerrarazteko helburua, eta halaber, euskal botere publikoen lehentasuna izango da

“ ”

Ez daukagu daturik medikuen esku-hartzeaz, eta gardentasunik gabe oso zaila da Euskal Herriko ospitaleetan nola artatzen ari garen jakitea, nik dakidana da emakumeek kontatzen didatena


biktimen arreta integrala oneratzeko eta erreparazioa". Eta hain justu azken zati horri heldu dio Fernandezek: "Indarkeria obstetrikora jasan duten emakumeek hortik egiten dute eskakizuna, ez dute zigorraz hitz egiten, erreparazioaz baizik, aitortzeaz eta onartzeaz hori gertatu zaiela, eta hori oraindik ez da ematen. Hori gako oso inportantea da".

Erditzea Artatzeko Espainiako Estrategia (2007koa) eta Osakidetzaren

erditzeko protokoloa oso ondo daudela gehitu du Fernandezek, eta kasu hauek ere, betearaztea dela bidea, "ez dirrelako betetzen, bertze inertzia horiek guztiak daudelako".

Eta betearazi beharko litzatekeen beste bat: Gardentasun Legea. "Ez dakizkigu ospitaleetako datuak, medikuen esku-hartzeen datuak ez dauzkagu, ez dago gardentasunik, eta gardentasunik gabe oso zaila da Euskal Herriko ospitaleetan nola artatzen ari garen jakitea, nik dakidana da emakumeek kontatzen didatena".

Profesionalen zaintza plan bat proposatu du: autozaintzarako espazioak bideratzea, gainbegiratzeko edo kontentziorako espazio bat ahalbidetzea, eta lan baldintzak hobetzea. Giza baliabideak nahikoak al diren begiratu beharko litzatekeela iritzi dio, eta psikologo perinatal bat egotea bermatu beharko litzatekeela erditzeetan. Emakume baten erditzea artatuko duten profesionalen formazioa ezinbesteko jo du, lau adarretan: neuropsikologian, komunikazioan, trauman eta genero ikuspegian. Azkenik, hitzaldian zehar azaldutako guztia bete ahal izateko, baliabide materialak egokitzea ere beharrezkoa dela gogoratu du (dilatazio eta erditze gelak, ebakuntza-gelak, erreanimazio tokiak, neonatologia sailak...). ●



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**


AEBetako jatorrizko herrien oscarra

Los Angeles (AEB), 1973ko martxoaren 27an. Oscar sariaren banaketa ekitaldian, gizonezko aktore onenaren saria Marlon Brandori eman zioten, *The Godfather* filman egindako lanagatik. Baina Brandok uko egin zion estatutxoa jasotzeari eta, haren ordez, Sacheen Littlefeather ekintzaile apatxea igo zen oholtzara, jantzi tradizionalak soinean, eta komunikatu bat irakurri zuen, AEBetako jatorrizko herriei ematen zitzaizen tratua salatuz. Ekitaldian bildutako aktore eta zinemagile askoren txistuen artean, Hollywoodek jatorrizko herriak gutxietsi eta kriminalizatzen zituela esan zuen, eta hilabete lehenago Wounded Knee herrian abiatutako okupazioa ekarri zuen gogora.

1890ean sarraskia egin zuen AEBetako armadak Hegoaldeko Dakotako Pine Ridge erreserban. 83 urte geroago, AEBetako Gobernuak jatorrizko herriekiko zeukan jokaera hobetzeko eskatzen zuten, eta haiekin ordurarte hitzartutakoa gutxienez betetzeko. Zehazki, tribuen presidente Richard Wilsonen ustelkeria eta abusu praktikak salatu nahi zituzten eta hura kargutik kentzea zen mobilizazioaren helburu nagusietakoa.

Okupazioak 71 egun iraun zuen gutzira, bi ekintzaile hil zituzten, eta okupatzaileek ez zuten berehalako helburua lortu; Wilsonek karguan jarraitu zuen, eta gainera 1974an hauteskundeak berriro irabazi zituen, iruzurra eta mehatxuak medio. Ondorioz, hurrengo urteetan bertakoen aurkako indarkeriak gora egin zuen Pine Ridge erreserban, nagusiki, Wilsonen milizia pribatuaren eskutik –erreserbaz kanpoko arduradunek ez ikusiarena egin zuten–. Amerikako Indiar Mugimenduaren (AIM) arabera, hiru urtetan argitu gabeko 64 hilketa kasu izan ziren erreserban; FBI-ren arabera, ordea, lau besterik ez ziren izan itxi gabeko kasuak.

Eta, hala ere, Marlon Brandoren keinuak eragina izan zuen, negatiboa nahiz positiboa. Oscarrari uko egitearen alde txarra atentzioa neurri batean desbi-



ACADEMY MUSEUM / MPR ARCHIVE

Ezkerrean, Sacheen Littlefeather duela 50 urteko oscar sariaren banaketa ekitaldian. Eskuinean, WOUNDED KNEEko okupazioa.

deratzea izan zen, batez ere, Sacheen Littlefeather ekintzaileari buruzko informazioa azaleratzen hasi zenean.

MEZUA IRITZI PUBLIKORA

Littlefeather (jaiotzez Marie Louis Cruz 1946-2022) ekintzaile eta aktorea zen, eta aitaren aldetik apatxe, yaki eta pueblo herrietako arbasoak zituela zioen. Baina bere senitarteko guztiek ukatu egin zuten hori, familiak jatorria Mexikon, Frantzian, Alemania eta Herbehereetan zuela esanez. Besteak beste, apatxe tribuko arduradunek ere Littlefeatherrek esandakoa gezurtatu zuten. Hortaz, benetako mezua zabaltzea nahi ez zutenen pozerako, Marlon Brandok aktore bat kontratatu omen zuen jatorrizko herrien borroka (eta jantziak) bereganatzeko.

Baina mezua nolabait zabaldu zen. Marlon Brandoren keinuak oihartzun

gehien lortuta ere, beste hainbat pertsona ezagunek bat egin zuten okupatzaileen alde: Johnny Cash abeslaria, Angela Davis ekintzailea, Jane Fonda aktorea, William Kunstler abokatua, Tom Wicker kazetaria... Babes horren eraginez, jatorrizko herrien gaia iritzi publikora iritsi zen, eta herri horietaz zegoen pertzepzioa zertxobait hobetzen lagundu omen zuen, berehalako neurri praktikorik ekarri ez bazuen ere.

Baina berehalako neurri negatibo bat saihestea lortu zuten behintzat, AIMk aitortu zuenez: Brandok eta gainerako pertsona ezagunek kazetariak erakarri zituzten erreserbara, eta AEBetako herritarren nahiz munduko beste hainbat herrialderen begiradapean, armadaren interbentzio bortitza zaildu zuen. Bestela esanda, Oscar sariari uko egiteak Wounded Kneeko bigarren sarraskia saihesten lagundu zuen. ●

PODKAST BERRIA

Istorioak, historia eta histeriak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hau Oroimen Histerikoa da, historia diren istorioek txoratzen gaituztenon podkasta". Horrela ematen dio sarrera Nagore Irazustabarrena Urangak, plazaratu berri duten saioari. Axier Lopez binakakoa osatzeko elkarrizketan jokoa emanez eta Eneritz Arzallus Alustiza makineta. Tontotik gutxi duzu, irakurle, badakigu, eta uste dut podkastaren nondik norakoak ulertzeko nahikoa azalpen badela lehen esaldi hori. Astekariko *Denboraren makina* atala ere ezagutuko duzu, Nagore Irazustabarrena sinadura ere bai, eta tiroak nondik doazen jabetuta egongo zara honezkerokero.

Kristoren prepuzioarekin eman diote hasiera asteartero argitaratutako den saioari. Ez prepuzioaren tamainagatik (bueno, edo baita ere), Kristorena izateagatik baizik. Eztabaidak azalekoa eman badezake ere, askorako ematen du! Estreinaldia izateko ez dago batere gaizki.



Nagore Irazustabarrena historia diren istorioak kontatzen ditu podkast berrian, Axier Lopez kazetariarekin elkarrizketan.

“ARGIAtik heldu zitzaidan proposamena duela denbora bat. Podkasten kontsumitzailea naiz, oso gustuko dudana formatua da, baina proposamena jaso berriren ematen zidan halako bertigo bat horrelako zerbait egiteak. Elkarrizketa formatua izango zuela ja-

kindakoa, ordea, egingarriagoa iruditu zitzaidan”, azaldu digu Irazustabarrena. “Paperera ohituta nago, idaztera, eroso nago terreno horretan, baina aitortu behar dut podkastak badituela bere abantailak: musika, adibidez. Kontatzen ari garenari soinu-banda jarri ahal izatea ederra da, nahiz eta pape- rak ematen duen irudia jartzeko aukera galdu”, jarraitu du.

ASPALDITIK ETXEOA

1997an sartu zen ARGIAN Nagore Irazustabarrena. Lehendabizi, Historia ikasia izanik, dokumentazio lanetan aritu zen eta, enpresan garai konplikatuak izanik (grebak eta abar, honek beste artikulua baterako eman dezake eta ezin dena orain kontatu), idazten hasi zen. Hamar urte egin zituen taldean, 2006an aldizkariko ‘Denboraren makina’ atala martxan jarri eta kolaboratzaile papera hartu zuen arte. Ordutik gozatzen dugu historia diren istorioen zaleok astekariko sail txikiarekin eta orain podkastaren oparia jaso dugu.

Grabatuta dituzte dagoeneko hurrengo atal batzuk. Gaiak hamaika. Eta aurrerapen txiki bat ere egin digu: “Podkastaren izenburuari saio bat eskaini diogu, historian zehar emakumeon gaixotasun bezala identifikatutako histeria aldarrikatzeko”. ●



URKO APAOLAZA / ARGIA

Adur kooperatibako lagunak, berrikuntza proiektuez ARGIAN

Martxoaren 7an Adur Software Productions kooperatibako kideak ARGIAN izan ziren, berekin batera Ametzagaiña Taldea osatzen duten gainerako enpresa komunitarioei, Antza, ARGIA eta lametzako lankideei, esku artean dituzten berrikuntza proiektuak azaltzeko. Adurren ikerketa eta garapenean dabilzan lagunek, adimen artifizialaren, ikasketa automatikoaren eta sare neuronalen inguruan hitz egin zuten, besteak beste, eta teknologia horiek taldeko enpresetan modu burujabearen erabiltzeko aukerak ere aztertu zituzten.

NARTZISISTEN LOREA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Nartzisistak gara. Buruzaleak alegia, ez egoistak edo norberkoikiak. Baten bat izango da horiek denak, baina nartzisista da gaurko grazia. Egungo jendartean gero eta nabarmenagoa da gainera ezaugarri baztertzaila hori, “nartzisista naiz”; ni, ni eta ni, Nartziso izan nahi dut. Neure buruaz eta neure obraz maiteminduta nago. Ni neuk sortu dudana maisulana naiz. Nartzisoren mito: bere burua errekarako uretan islatuta ikusten du eta ezin ederragoa denez, maitemindu egiten da. Uretako islari heldu nahian ito egiten da eta bertan sortzen da nartzisosa, landarea. Nartzisoak (*Narcissus spp.*) lorea makurtu egiten du eta mitoia ederki janzten du. Argibide bat: nartzisista izateak ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, loratzen ari garenik.

Nartziso ondo euskalduna da, mitoaz honantzago lorea. Mitoa ekialdetik eka-

rri baino lehenago lilipa esaten genien nartzisoei. Gero “aratuste-lore” deitu genien, seguruenera erlijio baten eraginez. “Zitxo” esaten zaio ihiaren tankerako hostoak dituen *Narcissus jonquilla* espeziari; eta “anbulu gaizto” ere esaten zaio lilipa arruntari (*Narcissus pseudo-narcissus*).

Mediterraneo mendebaldean, Europa hegoaldean eta Afrika iparraldean, baso argi eta belazeetan du jatorria lilipa jendearen genero honek, baina bere aniztasunaren zentroa Iberiar penintsula omen da. 50 bat espezie dagoela uste dute. Espezie basa horiek izugarritzko sona zuten Europako lorategietan, batik bat Ingalaterran, eta XIX. mendera arte Herbehereak ziren bere salmenta eta banaketa gune nagusia. Ingalaterran hainbeste miresten zituzten, espezieen arteko hibridoak landu eta sortzeari ekin baitzioten. Espezie horietatik eratorriak dira gaur egun ezagutzen ditugun 27.000 hibrido eta kultibar. Hibridoak naturan berez gertatutako nahasketetatik sortzen diren era berean, kultibarrak pertsonen eragindako nahasketetatik sortutakoak

dira. Nahasketa horien ondorioz ezaugarri oso bereziak dituzten lilipak ditugu: lorearen ugaritasuna, forma eta kolorea, txortenaren tamaina, ugaltza eta hedatzeko kema, eta abar.

Horietako asko Euskal Herrian bertako gisa identifikatuak ditugun berderatzi espezie eta azpiespezieetatik eratorriak izango dira. Hona bada egun lorategietan gozaten ditugun milaka horien amonen birramonak: *Narcissus assoanus*, *N. tazetta*, *N. triandus subsp. triandus*, *N. triandrus subsp. pallidulus*, *N. bulbocodium subsp. citrinus*, *N. pseudonarcissus subsp. pallidiflorus*, *N. pseudonarcissus subsp. nobilis*, *N. asturiensis* eta *N. minor*. Horiek 1985ean jaso ziren EAEko Landare Katalogoan. Gaur egun Euskal Herrian bizi den lilipa genero osoa berrikusteko azterketa bat egiten ari da Aranzadi Zientzia Elkarteak. Lagundu nahi izanez gero, ingurune batzietan lilipa ikusiz gero bi argazki atera (landarea osorik eta lorea gertutik) eta lekuen koordenatuekin #lilipa traola erabiliz Twitterren partekatu.

Udaberria ekartzen du lilipak eta mugi, badoa eta... ●



EKOIZPEN DUINA KONTSUMO HERRIKOIA

OSAGAIEN ATZEAN DAGOENARI ERREPARATZEN DION SUKALDARITZA SAIOA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Modan daude azken urteotan sukaldaritzako saioak, telebistako edozein katetan topa ditzakegu horietako asko. Baina, errezetak aurkezteko orduan, kontuan hartzen al dute saiook erabiltzen dituzten lehengaiak non, nola eta zein baldintzatan ekoizten diren? Argi dago ezetz... Bada, Gipuzkoako nekazaritza ekologikoaren aldeko Biolur elkarteak, elikagaien jatorria eta horiek ekoizten dituzten nekazarien lan eta bizi baldintzak ere kontuan hartzen dituen saioa abiatu du aste honetan: "Ekoizpen Duina Kontsumo Herrikoia" du izena, Azpeitiko Elikaguneko Xabi Izagirre da aurkezlea eta Hiru Damatxok ekoiztu du.

DUINA IKERKETA JENDARTERATZEKO TRESNA

Baratze ekologikoen bideragarritasuna eta barazkien kostu prezioa aztertze-ko Biolurrek egindako "Duina" ikerketa du oinarri saioak. Irailean aurkeztu zituzten ikerketaren ondorioak. "Lan hori jendarteratzeko eta publiko desberdinetara zabaltzeko hainbat bide ari gara lantzen, eta helburu horrekin jarri dugu martxan sukaldaritzako saioa ere", adierazi du Mainer Zubikarai elkarte-ko kide eta ikerketaren egileetako bat denak. "Duina"n 12 nekazari ekologikoren eta 12 laboreren datuak jaso zituzten, eta hain zuzen, labore horietako laurekin osatu dituzte saioetako errezetak. Ereindajane-ko Sabrina Pato izan da horien sortzailea.

Saio bakoitzean pertsonaia publiko bat izanen da gonbidatu berezia: Julen Portillo umoregilea, Onintza Enbeita bertsolari eta kazetaria, Gaizka Izagirre zinema kritikaria eta Uxue Amonarriz musikaria. Bestetik, errezetan erabiltzen



Martxoan zehar jarriko dituzte sukaldaritzako saioak ikusgai, Biolurren Youtubeko kanalean, tokiko zenbait telebistatan eta ARGIA-ren webgunean.

diren produktuen ekoizleak ere elkar-rrizketatuko dituzte. "Azkenean, ideia da labore horiekin errezeta txukun, berezi eta errazak egin daitezkeela ikusaraztea, lehengai onak erabiliz eta prezio onean", gehitu du. "Prezio onaz" ari direnean, noski, ekoizleentzako ere duinak izateaz ari dira. Kalabaza pizza, brokoli kuskus entsalada, zerba opilak ezti eta mostaza saltsarekin eta azenario bizkotxo izanen dira lau saioetako errezetak. Martxoan, ostegunetan 10:00etan Biolurreko Youtube kanalera igoko dituzte, eta tokiko zenbait telebistetan eta ARGIAko webgunean ere egonen dira ikusgai.

MATERIAL DIDAKTIKOA ESKURAGARRI

Baina sukaldaritzako saioa ez da "Duina" ikerketa jendarteratzeko sortu duten eduki bakarra. Izan ere, ikerketaren eskualdez eskualdeko aurkezpenak egi-

taz gain, eskola komunitateentzat eta familientzat material didaktiko-pedagogikoa ere sortu dute Biolurretik. 12 laboreak sasoika antolatu, bakoitzarekin errezeta bana proposatu, eta haur eta gaztetxoei ariketak planteatzen zaizkie: "Lehengaiak eta kantitateak prezioarekin lotu behar dituzte. Demagun Gernikako kalabaza dela aukeratutako labore, kalabaza hori oinarri duen pizza bat egiteko. Behar diren 600 gramo kalabazak 1,80 euro balio badu ekoizlearentzat duina izan dadin, kalkulua eginen da errezeta horrek lau pertsonentzat zenbat balio duen".

Ekoizpena duina eta, aldi berean, prezioa herrikoia izan daitezkeela irakastea da asmoa, eta haurren artean ere sensibilizazioa bultzatzea. Momentuz euskarri fisikoan dute materiala, baina aurrerago digitalean ateratzeko asmoa dute. ●

ZERBAIT PIZTEN ARI DA BILBON

Teoria batzuen arabera kolapsoa gertatuko denean onddoak izango dira biziraungo duten eta lurrean bizitza berpiztuko duten izaki bizidun bakarrenetakoak. Bai, onddoak; organismo txiki eta misteriotsu horiek, eta ez beste ezer. Horrela, gure hiriaren kolapsoaren aurrean, baita kolapso kulturalaren aurrean ere, onddoak bezala agertu diren ekimenetan jarri dugu esperantza. Zerbait pizten ari da Bilbon eta hainbat txokotan ekimen ugari loratzen ari dira, hiri honek pairatzen duen apatia kulturalari aurre egiten saiatzen ari direnak, beste zerbait proposatzen dutenak, bestelako sormenari lekua eman nahi diotenak.

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Ez da Bilbon eskaintza kulturalik ez dagoenik, baizik eta eskaintza oso instituzionalizatuta dagoela, goitik behera egina. Badira kontzertuak eta disko sesioak, badira aukerak eta tokiak. Jaialdiek hiria hartu eta soinu betetzen dute, baina musika kontsumitzeko modua azkarra da eta garrantzia aisialdiko esperientzian kokatzen da, gutxitan sorkuntzan. Horrela, askotan, hiria horma-paper erraldoi bat besterik ez da eta ikusleak figurante soil bilakatu gara. Kontsumitzaile, besterik ez.

Bilbo kulturalki kolonizatuta dagoen hiria da. Porlanezko monolito bat bailitzan, hiriko ekimen pribatu batek dirulaguntza mardulak jasota monopolizatu du hiriaren eskaintza musikal osoa. Osoa? Ez, badira porlanean zirrikituak sortu nahian dabilten ekimenak, material hotz eta grisean arnagune berriak sortzea bilatu dutenak. Batzuek denbora daramate lanean, beste asko pandemia ostean jaiotakoak dira. Badira, beraz, kulturaz gozatzeko bestelako moduak eskaintzen dituztenak, udalak jarritako trabei, Poliziaren isunei eta auzokide

“Militantzia kultural bezala uler daiteke? Ez dakigu. Argi dugu ez dela distentsiorako gune”

ESPORA

zelatariei aurre egiten dietenak.

Hiriko erdigunea kolonizazio horren muina da, errealismo kapitalistaren gorpuztea, alternatibarik uzten ez duen gunea. Horregatik, ekimen berri horiek guztiak periferian kokatu dira. Horrela, hiria inguratuz, Errekalde, Atxuri edo Irala bezalako auzoetan lanean dihardute, albo batera utzitako eremu hauek kultur eskaintzaren erdigunean jartzen saiatzen

ari dira. Testu honetan esperientzia, gune eta ekimen horietako batzuen kartografia burutzen saiatu naiz, eskaintza bakoitzaren berezitasun zein parekotasunean arreta ipiniz. Badira, noski, mapa honetatik at dauden ekimenak, gure radarretik kanpo geratu direnak. Haiei barkamena eskatzea eta beraien lana eskertzea besterik ez da geratzen.

ESPORA:
BANAKAKOTIK KOLEKTIBORA

Pandemiak Bilboko espazio mitiko baten bukaera ekarri zuen: Larraskito. Urtetan musika esperimental emanaldi eta entzunaldi ugari egin ziren Errekaldeko txoko hartan, bazterreko soinuei eta formatu txikiko eskaintzei lekua emanda. Askorentzat gau gogoangarriak sortu ziren han, eta askotariko musika ezagutzeko eta partekatzeko lekua izan zen. Lekuak, berez, bere horretan dirau, baina funtzionamendua eta erabilera erabat aldatu ziren, eta horrek jende asko umezurtz utzi zuen. Galdera asko airean: non batuko zen jendea proposamen haietaz gozatzeko? Non entzun ahal

izango ziren bazterreko soinu horiek? Zer gertatuko zen urteetan zehar jositako sarearekin?

Galdera haiei erantzuna bilatu dio hilabete luzeetan Larraskitoren inguruan sortu zen lagun talde batek: “Biran zegoen norbaitek idatzi eta non sartu ez genekiela, hor hasi ginen espazio bat izatearen beharraz jabetzen”. Hasieran harremana mantentzeko eta denbora pasatzeko ziren topaketa horiek proiektu berri bat erein dute: Espora espazioa. Onddo batzuetan dauden ugaltzarako oso txikitatik hartu dute izena. Egoera ez hain aproposetan bizirauteko gaitasuna dute gorputz horiek, eta hori bera da espazio berriak bilatzen duena, txikitetasunetik eta kolektibotasunetik zerbait sendoa eratzea. Horretarako elkarte bat sortu dute, zeinetan sormenaren eta esperimentazioaren inguruan interesa duen edonork lekua duen. Talde finko nuklear askotarikoa osatu dute, baita bazkidearen figura desberdinak sortu ere: “Horrela, bakoitzak erabakiko du zer motako inplikazioa izango duen. Egun bakarreko bazkide izateko ere aukera egongo da, emanaldi jakin batean soilik parte hartu nahi duenarentzat”.

Espora zer den eta zer ez den luze eztabaidatu dute. Proiektua ibiliaz definitzen joango bada ere, argi dute ez dela

jaiak egiteko ezta kultura modu azkarrean kontsumitzeko toki bat izango ere: “Ez da aisialdirako gune bat izango, ez behintzat kontsumo gizarteak aisialdia ulertzen duen era berean”. Gune berri honetan argi dute entzunaldia egongo dela erdigunean. Ez da denbora-pasa hutsa izango, lokal honetan egiten den ekimen orok zentzu bat izan behar du: “Oinarrian, antolatu dugun ekimenak

garrantzia osoa du eta horren bueltan antolatuko gara, seriotasunez eta merezi duen garrantziaz”.

Militantzia kultural bezala ulertu daiteke? “Ez dakigu hori den definiziorik onena. Argi dugu ez dela distentsiorako gune bat izango. Hemen proposatuko duguna elikagaia izango da”. Beste era bateko enkontruak izango dira Espora espazioak bultzatuko dituenak, hi-



ESPORA ESPAZIOA

Ametzola auzoan dago Kantauri. Grabaketa estudio gisa funtzionatzen du berez, baina zuzeneko emanaldi ugari eskaintze dituzte.



KANTAUARI STUDIO



Gizarte ekintzari lotutako ekimenak antolatzen dira Larraskitu auzoan dagoen Donations Project-en. Zuzeneko musika emanaldiak eskaintzen dira.

SANTIAGO GÓMEZ PORTILLO

rian aurkitzeko zailak direnak. Musika motari dagokionez irizpideak zabalak dira, beti ere ezaugarri batzuk betetzen badira: beste inon entzun ezin izango den musika izan beharko du. Zuzeneko musika ez da eskaintza bakarra izango, disko entzunaldiak eta tailerrak ere egin behar dituzte: “Esan bezala, entzunaldia egongo da zentroan. Musika kalitate onarekin eta merezi duen arretarekin entzun nahi dugu, ez dadila parranda egiteko soinu banda izan”. Orain arte hainbat zuzeneko, disko entzunaldi eta Deep Listening tailerra antolatu dituzte ibaiertzeko txoko honetan.

KANTAURI: EKOIZPEN BITARTEKOAK HARTU

“Zer behar dugu? Hori hartuko dugu”. Argi du milaka batailatari ibilitako Ando ipurterreak. Horregatik, Pantx kolektiboak Iturribide kalean zuen lokala utzi behar izan zuenean beste baten bila jarri ziren, baita lortu ere. “Orain lau urte Priscilla taldeak kontzertua eskaini zuen Aste Nagusian eta lortutako diruarekin Ametzola auzoko Aita Larramendi kalean zegoen lokal bat alokatu eta atondu zuten”. Artista guztientzat dago lekua, baina lehenetsuna du grabaketa estudio izaerak eta zuzeneko emanaldiak eskaintzeak.

“Gune totala da. Entseatu daiteke, diskoak grabatu, zuzenean jo eta pintxadak antolatu”

KANTAURI

Baina Priscilla taldea desegin zen eta, lokala mantendu bazuten ere, honen funtzionamenduak behera egin zuen. Pantx-eko lagunak lokal bila ari zirela jakin zuten gune hau erabili gabe zegoela. “Nola? Hau geldirik duzuela? Ez genuen inolako zalantzarik izan, han sartu eta lanean hasi ginen”. Urtebete baino gutxiago daramate Pantx-ekoek bertan, modu asanblearioan lanean. Kantaury izena ipini diote eta bertan publikoari irekitako *pintxada* eta kontzertuak eskaintzen dituzte, eta beharrezkoa dute zuzeneko estudioa erabiltzen dute disko edo abesti solteen grabaketak egiteko. “Pa-

gasarri All Stars-en grabaketak hemen egin dira, baita beste hainbat talderenak ere. Oso pozik gaude emaitzarekin”. Horrela, lokalak neguko faktoria gisa ere funtzionatu dezake, lanak ere eta uzta jasotzeko: “Gune totala da. Entseatu daiteke, diskoak grabatu, zuzenean jo eta *pintxadak* antolatu”.

DONATIONS PROJECT: KULTURA ETA GIZARTE-ARDURA

Aspaldi abiatu zuen Joanak Donations Project ekimena Bartzelonako Raval auzoan bizi zela. 2016an ekin zion antolatzen zituen tekno jaiei beste zentzu bat ematen: “Antolatzen genituen guztien artean, hilabetero saio bat karitate helburuetara bideratzea erabaki nuen”. Modu horretan, jai horietan lortutako etekinak gizarte ekintza batzuen artean banatzen zituen: auzoko jantoki sozial eta dutxa publikoak finantzatu, edota urruneko lekuetara janaria eta baliabideak bidaltzen zituen. 2020an Bilbora mugitu zen eta proiektuarekin jarraitzea erabaki zuen: “Hirian ez nuen inor ezagutzen eta harremanak zein sare bat sortzeko bidea ere izan zen”. Baina pandemiak bere asmoak oztopatu zituen. Lehenengo ekitaldiak Iralako Andres Isasi kaleko lokal batean antolatu zituen, soilik 25 lagunentzat eta ezarritako arau guztiak errespetatuz.



San Frantzisko auzoan dago Sarean Gunea.
Auzoaren errealitatea ezaguraztea da haien asmoa.

SAREAN GUNEA

Baina salbuespenezko osasun egoera ez zen oztopo bakarra izan, ordea. Proiektuak lehen pausuak eman eta gutxira Bilbok pairatzen duen beste gaitz bati egin behar izan zion aurre: higiezinaren espekulazioari. “Bizi nintzen eta jaialdiak antolatzen nituen eraikina erosi zuen funts putre batek eta bertan bizi ginenoizuzgarrizkoak egin zizkiguten gure espazioak uztera bultzatzeko. Argia moztu eta jarrera oldarkordun segurtasun pribatua jarri ziguten eraikinaren sarreran, besteak beste”. Saiatu zen arren, azkenean amore eman behar izan zuen.

Laster hasi zen, baina, lokal berri baten bila. Baita aurkitu ere. Donations Project-en egoitza berria Larraskitu auzoan dago, periferian hau ere. Bere helburua gizarte ekintzari lotutako ekimenak antolatzen jarraitzea da eta horretan dihardu. Zuzeneko musika emanaldiak, soinuaren ikerketarekin lotutako entzunaldiak, argazki erakusketak, tarot tailerrak eta beste hainbat ekimen antolatu ditu orain arte. “Soilik 50 pertsonarentzako ekimenak dira. Txikiak izatea nahi dut, esperientzia pertsonala izan dadin garrantzitsuenak. Hau ez da jai bat, ez sozializatzeko leku bat ere, ez behintzat ohikoa dugun moduan”. Orain arte ekitaldi guztiak

“Txikiak izatea nahi dut, esperientzia pertsonala izateko garrantzitsuenak”

DONATIONS PROJECT

sold out izan dira eta lortutako dirua beharra dutenei banatu die: Barakaldon zubi baten azpian bizi diren gazte batzuei edo ospitaletarako materiala batzen duen senegaldarren elkarte bati, adibidez.

SORTU DIRA BESTEAK

Aurretik aipatutako espazioak ez dira bakarrik; lurrazpiko Bilboren mapan badira beste gune interesgarri batzuk. Onddoek jarraitzen dute Bilboko porlanean hedatzen. Horietako bat Sarean Gunea dugu, azken aldi birsortze bidean dagoen proiektu bateranoa. San Frantzisko auzoan, Mariaren Bihotza plazan kokatutako espazio honek be-

rriz ekin dio kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak eta abarrak eskaintzeari, hila-bete batzuek barne eztabaida prozesu batean murgilduta egon ondoren. Bereaien asmoa auzoaren errealitatea ezagutarazi eta premiei alternatiba kultural bat eskaintzea da, auzotarrekin eta auzoarentzat.


Okupazio eta punk mugimendutik datorren lagun talde batek Lakobra Kolektibo osatu du, Bilbon musikari lotutako proiektu autogestionatu bat martxan jartzearen beharra ikusi eta gero. Aurretik izandako esperientzietatik jasotako irakaspenen ondorioz modu asanblearioan funtzionatzea erabaki dute, modu honetan kontsumismo basatiari aurre egin eta hirian lurrazpiko proposamenak antolatzeko. Luzera begirakoa izateko asmoa duen proiektua enbrioi-fasean dago: lokal bila ari dira oso arrakastatsua izan den diru-bilketa kanpaina aurrera eramanez ondoren.

Argia ikusi duen azkenetariko proiektu bat dugu Espacio de Creación Errática. Deustun kokatutako espazio honek ikus-entzunezko munduarekin lotura handia du. Hori dela eta, argazki eta zinema munduarekin lotutako erakusketa, tailer eta kurtsoei emango diete lehentasuna. ●



LIBURUA

Norbaitek kontatu behar zuen



FABIO ROSSINI / BAO PUBLISHING

NO SLEEP TILL SHENGAL

ZEROCALCARE

FARMAZIA BELTZA, 2022

JON TORNER ZABALA

Duela hamar bat urte publikatu zuen Michele Rech Zerocalcare komikigile italiarrak estreinako liburua, *La profezia dell'armadillo*, Farmazia Beltza argitaletxeak euskarara ekarria 2021ean, *Armadiloaren igarkizuna* izenburupean. Lehenago plaza-ratu zituen *Hondamueinean* bildumako biak eta *Kobane calling*, Siriako guda zibilaren erdian kurduak eraiki zuten Rojavako lurralde autonomora egindako bidaiaren kronika ederra. Azken horren bideari jarraitzen dio eskuetara heldu zaigun azkenak: *No sleep till Shengal*. Irak iparraldeko yezidien artean hainbat aste eman zituen 2021ean Zerocalcarek, herri hark sufritutako sarraskia eta biziraupen-borroka komikian jasotzeko. "Peshmergen zein Irakeko Gobernuaren mehatxua, berantolatzen saiatzen ari den Isis, Turkiako dronak bonbardatzen... baina


baita osatu gabeko zauriari darion oinaze, amorru eta izu puskaren aurka ere", dio autoreak komikiaren hondarraren. "Denen zauria dena, baina baita norberarena ere".

Sakonak dira 2014ko genozidioak eragindako arrakalak, agerikoa da zuri-beltzeko komikian agertzen diren pertsonaietan. Testigantza –eta isilune– gordinak dira bildutakoak, baina, egilearengan ohikoa den moduan, umoreak ere badu lekurik, haren kontzientziak –armadilo jakintsu batek pertsonifikatua– hitz egiten duenean adibidez, edo irakurleok agertzen garenean George Pig marrazki bizidunetako zerriak gorpuztuta, edo Erdogan teletubbiën cosplayer moduan mozorrotuta...

"Nongo zakiladak amaitu nau hemen?", galdetzen dio bere buruari Zerocalcarek, Irakeko poliziaren kaserna barruan atxiki dutela. "Inork ezer esaten

ez badu, inor ez badago so... sarraskiak datoz", Erromako Kurduen Etxeko ordezkariaren hitzek ematen dute argibiderik. Hainbatetan esan dut, eskoletan gehiago baliatu beharko lirateke gisa honetako komikiak, testu liburuez gaindiko ikuspegia izateko.

Itzulpenaz bi gauzatxo: bat, euskaraz beste edozein hizkuntzatan baino lehenago publikatu du komikia Farmazia Beltzak; eta bi, Koldo Izagirrek euskaratu du, modu borobilean. *Armadiloaren igarkizuna*-eta irakurtzean euskararen erabilerak eragin dit karrankarik, jatorrizkoari fidelegia zaiolako akaso, italiara baino erromatar dialektoa baita haietan nagusi. Beldur naiz horrelakoek euskarazko komikietara hurbiltzen diren irakurleak uxatzen ez ote dituzten, nire hurbileko pertsona bati gertatu zaion moduan. Ez da, zorionez, *No sleep till Shengal*-en kasua. ●



MUSIKA

Haginka, zureak egin arte



GALDER IZAGIRRE



BASOAREN ILUNEAN DANTZA

BAZKA

FILFERRO / STOP CONTROL, 2022

IKER BARANDIARAN

Bizi ditugun garaiok gero eta gehiago daukate muturrekotik, basakeriatik eta gupidagabetik. *Mad Max*-en kontatzen zituztenak gero eta hurbilago ikusten ditugu. Boteretsuak, gutxi batzuk, irla fortifikatuetan, aberastasun guztiak ari dira pilatzen. Klase ertaina desagertzen ari da. Eta gehiengo gero eta handiagoa osatzen duen periferia erraldoia boteretsuen kontra altxatu beharrean elkarri mokoka –engainatuta- bizirauteko ahaleginean. Eta hau guztia gutxiengo boteretsu horren bozgorailuek kontatuta –eta sinetsita–.

Bada ordua historia idazteko gupidagabe horien bazka garenok, eta ez dezaten haiek guri buru idatzi. Estricalla taldeko lau kidek (Hodei, Txomin, Erik

eta Fer Apoia), kasu honetan Noise Hole, Dut, Kuraia eta Berri Txarrak taldeetan aritutako Galder Izagirre bateria jotzaileak lagunduta sortu eta gorpuztu dute ehizatuak direnen ahotik kontakizun gordin hau.

Galder eta Fer talde berean batuta irudikatzeak sortu zuen zenbaiten artean nolabaiteko Kuraiaren oroitzapena eta nostalgia. Baina lan luze honetan aurki dezakegunak ez du zerikusirik Kuraiaren urgentziatzko rockarekin, eta ez, ez dago Joseba Ponce. Giro apokaliptiko eta sonoritate pisutsuetan murgildu dira Bazkan. Hardcore (nola ez!), post-hardcore eta metalaren arteko mugatan daude kantu gehienak, Relpase eta AmRep diskoetxeetako taldeen sintonian, nahiz eta amildegi

horretan Fer Apoak ahalegin sutsua egiten duen berezkoak diren melodiek bere lekua hartzeko.

Kantu askoren sonorizazioa pisutsu eta grabea da erabat, bestelako afinezioekin jolastuz; eta haien zuzeneko energia eta irmotasun ikuskizuna. *Basati-ya*-k hardcore azkar eta metal ilunenarekin egiten du dantza. *Bhiena* da hardcore-punk garratza. *Arima bako* erritmo ia tribalak dituen hardcore-rock kiribildua. *Zau-biak* espiralera amiltzen den hardcore-metal pisutsua. *Idi bihotz* eta *Balea eta izotza* hit-ak dira, beteak, eta itsatsita gelditzen zaizkizu orbainean. *Oreinak* burrundara gabeko pisua da. *Xaguxar* hardcore-punkari buelta eta erdi. Eta *Beletxuria* post-hardcore-noise ariketa obsesiboa. ●



Ahantzuratik gogoetara

 ALEJANDRA GOIKOETXEA  AINHOA RESANO

HONDAMENDIAN

KONPAINIAK: Artedrama & Axut. **IDAZLEA:** Harkaitz Cano.

ZUZENDARIA: Ximun Fuchs. **AKTOREAK:** Ander Lipus, Ane Sagüés, Ruth Guimerá, Jon Ander Urresti, Maialen Belaustegi, Maite Larburu, Manex Fuchs eta Eneko Gili. **EGUNA:** otsailak 17. **LEKUA:** Elorrioko Arriola antzokia. **HURRENGO EMANALDIAK:** Martxoaren 17an Galdakaon, 18an Bergaran, 25ean Ataunen, 26an Pasaian, 30ean Tarbesen, apirilaren 4an Durangon eta 15ean Aulestin, besteak beste.

2020ko otsailean Zaldibarko zabortegian gertatutako luiziaren ondorioz Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran langileak desagertu ziren, eta izugarritzko hondamendia eta nahasmena sortu zen Euskal Herrian. Hilabeteren ostean, Txinatik omen zetorren birus ezezagun batek osasun sistema kolapsatu eta guztiok etxean atxiki gintuen. Artedrama eta Axut konpainiaren azken lanak garai ilun hauek ekarri ditu taula gainera.

Antzokira sartutakoan kolore grisa eta nahasmena nagusi, eszenatokia bera ere txiki utzi duten ikus-entzunezkoen indarra nabari da ikuskizuna hasi orduko ere. Bizi eta adi segitu dut narrazioa hasieratik bukaeraraino, aktoreen rol aldaketak gertutik jarraitu eta eszenografiako elementu guztiak kokatzeko. Sarritan norbere azalean kazetariaren ezintasuna, desagertutako familiaren

etsipena eta arduradunen noraeza eta axolagabekeria sentitzen da. Berezia oso ospitaleko gaixoa eta langilearen artean sortutako istorioa: langile txiletarrak Atakamako basamortua arropa zabor-tegi bihurtzen ari garela gogorarazi digu bere sorterriko istorioa taula gainera ekarrita, eta horrekin ulertu dugu Zaldibarko irudikatzen eszenatokia arropaz bete izana. Bikaina une horretan bertan ere, izarren proiektzioa, basamortura bidaiatzeko aukera eskaini digu.

Egoerak eskatzen duen neurriko kritika politiko eta sozial ederra, umorea presente izan duen kontakizun bizi bati eskutik helduta. Aktoreak trebe, eszenatokiaren jabe eta publikotik gertu, oso gertu. Axut eta Artedramaren azken lanetan ikusi dugun gisara. Oraingo honetan, baina, nabarmen landu dute ikus-entzunezkoen indarra. Eszenatik hiru paretetatik kanpo ere islatutako

zenbaki eta datuek guztion ahantzuraren lagatako garaiko informazio gaindositia eta ziurgabetasuna berpizteraino.

Bukaera moduan hasierako eszena berriro parez pare; publikoaren begiak ordea zorrotz, eta barruak mugituta. Hain gertu daukagun sasoi ilun hura pasatu dela uste arren, hondamendiak arrastoa laga du, eta beharrezkoak dira gogoeta edo eztabaidarako gisa honetako abaguneak.

Aktoreek azken ekoizpen honetako beste protagonista batekin agurtu gaituzte. Izan ere kantua eraman dute antzokiko ateraino, borobil. Izeba eta biok izan gara bertan, eta bukaeran besotik tira egin behar izan diot atetik irteteko. "Argiak itzali arte geratuko nintzateke beraiek entzuten" aitortu dit irribarretsu. Isilik egin dugu kotxerako bidea, aspaldiko partez antzokian gozatu izanaren sentsazioarekin. ●





Hitz gezidunak

GUARDIA ----- MADARIKAZIO, ARNEGU		ARROPA KENDU, ERANTZI KILOBYTE		FUSKAL IRRATI- TELEBISTA		EGUNAREN ZATI ILUNA ----- TXARTO		PESIMISTA ----- PERTSO- NAIAREN ABIZENA		NARRASTI MOTA ----- ZEHATZ
UR-KORRON- TE NATURAL ----- ZINTZO						ERRAZ URTZEN DENA ----- ZETABE, GALBAHE				
		UTIKAN! ----- ERRENKADA, LERRO								
KAPELA ----- ELEKTRIZITA- TE TENTSIOA NEURTZEKO UNITATEA				DU, HAEI ----- MERKATUA		LAPURDIKO HIRIBURUA ----- LIBIAKO HERRITAR			UZTAI ----- LAPURDIKO UDALERRIA	
				LAPRAN, OHER ----- ILARGI-FASE						RADONA ----- HAR
MATAZAK HARITZEKO TRESNA	OKERKERIA ----- AISIA					BESTE ----- PERTSO- NAIAREN IZENA				
										ALAI
							AMUAN JARTZEN DEN JANARIA ----- ... EGIN, HOZKATU			
GASTEIZKO MUSIKA TALDEA ----- KANPO			BAKARKAKO ----- SALDU ADITZAREN INFINITIBOA					EGUR ----- ERDI HITZ- ELKARTETAN		
		SELENIOA ----- NORI ATZIZKIA		PILOTURIK GABEKO AIREONTZIA ----- ZIRKONIOA						ROENTGEN ----- MUSIKA NOTA (ALDERAN- TZIZ)
LANDARE MOTA, GARO ----- LANTEGIAK						JORIA, OPAROA ----- ANPERE				
										IKERKETA- LAN

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

3	6			7			8	2
8		4			6			
	7		3	4	8			
	5							
		3	5				2	6
	4	9	6		3			1
	8			3	9	2	7	
9	3	1		2			6	
4		7	1		5	3		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Akatsik gabe.
2. Soka sendoa.
3. Saski handi.
4. Astiro.
5. Gututz txikia dena.

EBAZPENAK

1. ZUZEN
2. UNAMA
3. ZARAN
4. EMARO
5. NANO

8	6	5	9	7	1	4	8	2
8	9	4	2	5	6	1	3	7
1	7	2	3	4	8	6	5	9
7	1	3	5	9	4	8	2	6
2	4	9	6	8	3	7	1	5
5	8	6	4	3	9	2	7	1
9	3	1	8	2	7	5	6	4
4	2	7	1	6	5	3	9	8

I	S	I	J	K	V	R	R	E	L	I	V	I	V	I
I	A	R	I	A	S	E	Z	E	A	T	R	I	A	I
R	E	A	R	O	N	O	D	R	O	E	S	E	A	T
R	Z	U	R	O	K	A	N	B	A	V	A	S	A	
V	A	J	A	B	E	I	L	K	A	V	A	R	I	H
E	Z	E	R	T	E	B	O	I	Z	A	V	A		
R	N	I	V	A	R	H	I	H	E	I	V	A	L	O
K	U	A	R	K	U	N	A	B	A	I	L	V	A	N
V	A	I	O	N	A	D	J	U	D	N	O			
O	R	K	O	R	U	R		I	B	A	I			
I	K	I	Z	I	G	A		E	S	A	K	R	E	S
Z	E	G						E	Z					

Francisco Carmona

HILEKO MINGARRIAK TABU



“Endometriosisia normalizatzeak emakume askori eragiten dien sufrimendua bukatzeko, ezagutzera eman beharra dago”

Bartzelonako Clínic ospitaleko Ginekologia eta Obstetrizia saileko arduraduna eta Society of Endometriosis and Uterine Disorders elkarteko presidentea da Francisco Carmona (Jaen, Espainia, 1959). 2021ean *Endometriosis. La guía para entender qué es y cómo cuidarte* (Grijalbo argitaletxea) liburua argitaratu zuen.

 SAIOA BALEZTEN  DANI CODINA

ENDOMETRIOSIAN ADITUA

"Ezinhobeki gogoratzen dut endometriosiarekin artatu nuen lehendabiziko emakumea, 1996. urtea zela uste dut: endometriosi sakona zuen eta nire zerbitzuko medikuek ebakuntza egin zioten. Bi urte geroago Ginekologia Orokorreko anbulatorioan nintzela, berriaz egin nion kontrol bisita. Ebakuntza egin zioten arren, berdin zegoen. Bere kasuak gaixotasunarekiko interesa piztu zidan. Orduz geroztik saiatu naiz ahalik eta emakume gehienengana iristen, gaixotasunari buruzko informazioa eta behar dituzten erantzunak emateko. Horregatik erabaki nuen 2021ean liburua idaztea: modu errazean azaldu nahi nuen gaixotasunaren inguruan jasota neukan informazio guztia".

Martxoaren 15a Endometriosiaren Nazioarteko Eguna da. Zer da zehazki gaixotasun hau?

Jatorri ezezaguna duen gaixotasun kronikoa da. Funtsean, nolabait ulertzeko, endometriosisia duten gaixoei endometrioia bere tokitik kanpo hazten zaie. Umetokia estaltzen duen mukosa bat da endometrioia, eta hori umetokitik kanpo dagoenean inflamazioa eta itsaspenak eragiten ditu. Mingarria da.

Hilekoan zehar min izatea barneratuta dugu, baina endometriosisia zenbateraino da ohikoa eta kezagarria?

Hilekoak ez luke ondoez arina baino eragozpen gehiagorik eragin behar, eta medikuren batek kontrakoa erraten badu profesionalaz aldatu beharra dago, ahalik eta agudoen. Adibide bat jarriko dut: Otik 10era-ko eskala batean, 0 min guttiena eta

10 gehiena izanik, 3tik goiti dagoen guztia aztertu eta esploratu behar-ko litzateke, zergatia jakin eta tratamendua bilatzeko.

Espainiako Estatuan ugaltzeko adinean dauden hamar emakumetik batek pairatzen du. Datuen arabera, endometriosisia duten emakumeak gehiago dira diabetesa edo asma dutenak baino. Ezezaguna izaten jarraitzen du, ordea. Zergatik?

Hilekoaz solastatzea tabua bada, hileko mingarriaz solastatzea are gehiago. Baina endometriosiaren tabua haustea funtsezkoa da, modu bakarra delako hainbertze emakumeren bizitzan eragiten duen talka murrizteko.

Zeintzuk dira endometriosiaren sintomak?

Bi azpimarratuko nituzke. Batetik, mina. Gaixotasuna duten ia pertsona



UTZITAKOA

"Emakumeak ohituta daude aditzera sintomak imajinatu egiten dituztela edo ez direla hainbertzerako".

denek pairatzen dute: hasieran, hilekoaren gisakoa izan ohi da; baina, gerora, bortitzagoa bilakatzen da eta denboran ere luzatzen da hilekoaz haratago, hala nola, obulazioan eta harreman sexualak izatean kroniko bilakatu arte. Bertze sintoma ohikoa da gaixotasuna duten hamarretik ia lauk haurdun gelditzeko zailtasunak dituela.

Osasun mentalean eraginik izaten du?

Noski. Kontua da, denbora luzez gaixotasuna duten emakume anitzen sintomak normalizatu eta ezeztatu egiten direla. Ohituta daude aditzera sintomak imajinatu egiten dituztela edo ez direla hainbertzerako. Ezin dugu ahantzi sintomak agertzen direnetik diagnostikoa egiten den arte batez bertze hamar urte pasatzen direla. Larria da, eta, noski, horrek guztiak antsietatea, depresioa eta bertzelako hainbat kalte eragiten ditu osasun mentalean.

Zergatik da garrantzitsua gaixotasuna goiz atzematea?

Modu bakarra delako emakumeak behar duen tratamendua garaiz abiatu eta gaixotasunaren bidea aldatzeko. Detekzio goiztiarrari esker, itsaspenak, bertze organoetan kalteak sortzea edo ugalkortasun arazoak eta minaren kronifikazioa ekidin daitezke. Funtsean,

emakumeen bizimodua hobetzea lortuko genuke.

Zentzu horretan, endometriosisa duen emakume askok salatzen dute emakume izateagatik ahantzita daudela osasun sisteman.

Osasun sisteman nagusi den genero joeraren adibide argia da endometriosisa. Gaixotasunaren zergatiak, seguruenik, sozialak ere badira. Eta, noski, gizartean nagusi den begirada androzentristak eragin zuzena du: medikuok gizartearen parte garen heinean, gabezia berdinak ditugu.

Osasun mentala tabua bada, emakumeena are gehiago. Osasun sistema publikoak endometriosisa duten emakume horien beharrak ongi zaintzen ditu?

Inola ere ez. Emakumeen osasun mentalaren arreta eskasa eta guttiegia da. Ez daude behar bezala prestatuko profesional asko, eta ez dago babesik.

Eta zein izaten da endometrioia pairatzen duten gaixoentzako tratamendua?

Ez dago tratamendu sendagarririk, hori hala da, baina tratamendu hormonal eta kirurgikoen erabilera egokiak laguntzen du, esaterako ugalketa laguntzarako teknikak praktikatu eta bizi

estiloan hainbat aldaketa eginez. Horrela lortu daiteke gaixotasuna duten emakumeek bizitza normala eta zorionekoa izatea. Baina horretarako funtsezkoa da emakume bakoitzaren beharretara egokitutako bide-orri bat egitea.

Abortuaren Lege berriarekin, hileko mingarriak dituzten langileek hiru eguneko gaixoaldirako baimen eskubidea izango dute aurrerantzean. Zer deritzozu?

Neurri aproposa iruditzen zait, zalantzarik gabe, baina guttiegi da. Endometriosiari dagokionez ez dira lan bajak bakarrik behar: gaixotasunaren zergatiak ezagutzeko ahalegina egitea ezinbertzekoa da, baita konponbide egokia aurkitzea ere. Ikerkuntza ezinbertzekoa da tratamendu sendagarriak aurkitu ahal izateko.

Zein da premiaz ekiteko endometriosisa duen erronkarik garrantzitsuena?

Medikuntzaren begiradatik detekzio goiztiarra, batetik; eta gaixotasuna nondik datorren ezagutu ahal izatea tratamendu sendagarriak aurkitzeko, bestetik. Baina gizartean ere erronka garrantzitsuak daude: endometriosisa ezagutzera eman beharra dago, normalizazioak emakume anitzei eragiten dien sufrimendua bukatzeko. ●

UGT, irabazi arte

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ariketa bat proposatu nahi dizuet aste honetan. Jarraian esaldi bat kopiatuko dut eta haren egilea asmatu beharko duzue –Google erabili gabe, faborez-emango dizkizuedan aukeren artean.

Hortxe esaldia: “Nire ustez lan-eskaintza bati uko egiten dion pertsonak, formazioa eskaini bazaio, lan hori egiteko kualifikatuta badago, eta diru-laguntza publikoren bat jasotzen ari bada, bai langabezia, bai Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera, iruditzen zait estatuak planteatu beharko lukeela hori kobratzen jarraitu behar duen edo ez”.

Idea distirant hori ahoskatu du:

- a) Patronaleko buruak.
- b) Presidenteak.
- c) Esklabista batek.
- d) Sindikalista batek.

Erantzun zuzena jakingo duzu, noski, zure belarrietaraino iritsi bada pasa den astean Pepe Alvarez UGT sindikatuko idazkari nagusiak *El Mundo* egunkari libertifaxaren ekitaldi batean langabeziaria mozteaz esandakoa. Baina bestela, penkatzeko diseinatutako test bat da, airtortzen dut.

Adierazpena nondik datorren kontuan hartuta, harritu-harritu ere ez du egiten, hori ere esan behar da. UGTri buruz ari baikara, azken finean. Alegia, azken hamarkadetan “paktua”, “lasaitasuna” eta “konkordia” bezalako kontzeptuen inguruan biribilketa alegeran dantzan ibili den erakunde bat, PSOEk gobernatu duen garaian ekintza sindikala Broadwayko musikal bihurtzea ere serioski planteatu izan duena.

Nobedadea, beharbada, adierazpen honek sindikatuan bertan eragin duen erreakzioa izan da, berehala atera baitira Alvarezen ekipoko zenbait ordezkari esatera “ez direla hitz oso egokiak” izan, pixka bat “Pepe, praketa irekita daukak” komentatuz bezala. Ez dela komeni hain-



beste erakustea, alegia. Batez ere kontuan izanda Espainiako Estatuak dagoeneko ken diezazkizukeela langabeziako diruak, baldintza jakin batzuk dituen eskaintza bati ezetz esaten badiozu –hiru hilabeteko paroa kentzen ahal dizute, adibidez, bizi zaren herritik 30 kilometroko radioan dagoen lanpostu bati uko eginez gero, eskaintakoa zure ezaugarrientzat egokia dela uste badute–.

Gauzari nondik heldu nabilela, Sergio Leonek zuzendutako *spaghetti western* baten tituluak –*Zintzoa, gaiztoa eta itsusia* (1966)– oinarritutako hipotesiak formulatzen hasi naiz. Zintzoa: Alvarez eskapatu egin zitzaion, akats bat izan da, ez dago atzean ezer gehiago bilatu beharrik. Gaiztoa: gai honetan iritzi publikoari tenperatura hartzeko pertsona egokiena sindikatu bateko burua izan liteke. Akaso bulegoren batean jada erabaki dute langabezia kobratzearen istorio horretan libertinaje handiegia dagoela eta mozten hasi behar dela.

Eta itsusia –“nazbol hipotesi” gisa ere ezaguna–: azkenaldian, sektore batzue-

tan, beste herrialdeetatik inportatutako lan-indarra kontratatzeaz hitz egiten ari dira –merkeago, esan beharrik ez dago–; eta testuinguru horretan hitz egin du Alvarezek. Gauza gehiago ere esan ditu, gainera. Adibidez: “Ezin da esan Espainian ez dagoela eraikuntza-sektoreko langilerik, 3,5 milioi langabetu izanda”. Beste hitz batzuekin: Espainiako Estatu-ko langabetua bazara hartu eskaintzen dizuten edozein lan, kanpotarrak ekartzea okerragoa izango da-eta.

UGTko buruaren bonbereneko ideia horren atzean hipotesi horietako edozein egonda ere, kontent izango dira goi-estamentuetan: Frantziako Estatuan erretreta hartzeko adina 64 urteraino luzatzeko asmoen aurka mobilizazio historikoak ikusten ari garen garai berean, ez dirudi greba orokor bat deitu gabe hamar urte baino gehiago daramatzan zentral sindikalak aurrerantzean ere problema handirik eragingo dienik. “UGT, irabazi arte!” oihuka imajinatzen dut gorbatadunen bat. ●

**Martxoaren 8tik
aurrera**

**berria
fm**

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista
erraietan
eta uhinetan**



UXUE Rey

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
[Berria.eus/podcast](https://berria.eus/podcast) webgunean eta plataformetan entzungai.**



ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

EUSKADIKO
ITUN
BERDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin Izar, 2012ko Munduko
Emakume Chef Onena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

**EZ DAGO URA BAINO
INDARTSUAGORIK**

www.indartsuagoak.eus